# ttipi-ttapa

189 zenbakia • 1996ko irailak 12 • XV. urtea

# Hamabostero paperean eta mundu zabaleko ordenagailuetan



*«Ongi etorri TTIPI-TTAParen Internet-eko ediziora».* Holaxe hasten zen uztaila hasieran proba gisa munduratu genuen lehen edizio elektronikoaren agurra. Eta orduan agindu bezala, hemendik aitzinera hor egonen dira puntualki TTIPI-TTAPAk argitaratzen dituen ale guzien edizio elektronikoak. Horrela, Euskal Herriko xoko honetan gertatu denaren berri mundu zabaleko edozein tokitan irakurri ahal izanen da. ☞ 4

*Internet-en bitartez gure herrietako berriak mundu osoan irakur daitezke*

**25 Euskal Herriko II. Goitibera Txapelketa jokatu zen Saran abuztuko azken larunbatean**

Denetara Euskal Herri osoko 37 talde aurkeztu ziren, iaz baino 12 gehiago. Txapela gipuzkoarrek eraman zuten, Soroa aita-semeek (Lasarte eta Añorgakoak). Eskuineko argazkian bi beratar, Sabino eta Luis Mari, sailkapen nagusian laugarren gelditu zirenak.



**3** Elkarrizketa: **Presoen eskubideak errespetatzea eskatuz,** Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 15 lagunek astebeteko baraualdia egin dute Donostiako Artzai Onaren katedralean

**10 Astegunetan anbulantziarik gabe Bortzirietan**

**19 Koteto Ezkurra buruz-buruko erremonte txapelduna bigarren urtez**




# SAMPI ARAGON




Golf




Caddy

**25 urte zuen zerbitzura**

**TXAPA eta PINTURA**
**MEKANIKA**

**ELEKTRIZIDADEA**
**GARBITZAILE AUTOMATIKOA**

*Grua zerbitzua 24 ordutan*

Leitzako errepidea • ✆ 450354 / 450759 • **DONEZTEBE**

DATUAK..........

- *Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hamabortz lagunek astebeteko gose greba burutu dute Donostiako Artzai Onaren katedralean.*
- *Abenduan hasi zen ekimen honetan 37. txanda bete dute. 550 pertsona baino gehiagok egin dute orain arte astebeteko baraualdia.*
- *Gaur egun dauden 540 euskal preso politikoetatik 36 bertzerik ez daude Euskal Herriko gartzeletan.*
- *Gartzela zigorraren hiru laurdenak bertze 125 presok bete dute eta legez baldintzapeko askatasunean egon beharko lukete.*

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIA: BITTORI TELLETXEA

☞ **Baztan, Bortziriak eta Malerrekako** *gose grebalariak Donostiako Artzai Onean*

# "Presoei legez dagozkien eskubideak bete arte segituko du gose grebak"

*«Presoen eskubide minimoak errespetatzea eta gaur egun dagoen legea betetzea»* da Baztan, Bortziriak eta Malerrekako hamabortz lagunek Donostiako Artzai Onaren katedralean abuztuaren 24tik 31ra burututako gose grebaren bitartez egin duten eskakizun nagusia. *«Presoek bere etxetik hurbilen dagoen espetxean zigorra betetzeko eskubidea dute legez; gaixotasun sendaezinak dituzten presoek libre egon beharko lukete eta egun hiru preso daude egoera horretan; zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoei baldintzapeko askatasuna eman behar zaie eta gaur egun 125 preso daude egoera horretan, batzuk sei urtez... Azkenik presoen eta senideen oinarrizko eskubideak betetzea eskatzen da"* zioten baraualditik atera bezperan hamabortz lagunek. Astebete horren balantzea egiterakoan *"inpresio hagitz ona jaso dugu eta animoak baditugu, batez ere herri ekimen honen parte sentitzeagatik. Denbora guzian bisitak izan ditugu, gartzeletatik elkartasun mezuak ailegatu dira eta horrek animo haundiak ematen ditu"*.




Astebeteko gose greba egin dute eskualdeko hamabortz lagunek

Bigarren egunean bi lagunek izandako arazo ttiki batzuk kenduta ez dute aparteko osasun problemarik izan eta euria aipatu dute gauzarik txarrena bezala, katedraletik kanpo egin beharreko ekitaldiak zapuztu baitie.

**ZER EGIN DUTE ASTEAN ZEHAR?**

Halere, ez dira besoak gurutzatuta egon tarte horretan. *"Egunero diarioa idatzi eta prentsako errekorteekin hemeroteka osatzen genuen. Egunean bi aldiz ordubeteko enkartelada genuen katedral atarean, sinadurak biltzeko eta postalak saltzeko mahaitxoa paratu, bisitak eta prentsa atenditu, preso guziei kartak idatzi... Hori lan ikaragarria da"*. Gainera, beraien ondotik sartu den Bizkaiako Meatzeta eskualdeko txandak oroigarria jaso du beraien eskutik, *"plastikozko botilekin egindako zako-zarra eman diegu... Ez dugu aspertzeko batere astirik izan"*.

> *"Inpresio hagitz ona jaso dugu eta animoak baditugu, herri ekimen honen parte sentitzeagatik. Bisitak izan ditugu, gartzeletatik elkartasun mezuak ailegatu dira eta horrek animoak ematen ditu"*

**KANPOTIK LAGUNTZA HAUNDIA JASO DUTE**

Abuztuaren 24an gose greban sartu zirenean auto karabana joan zen eskualdetik baina ez zen elkartasun adierazpen bakarra izan. *"Lesakan 705 litro ur eta ehundaka seilo eta sobre bildu dira. Preso guztiei idatzi eta hurrengo txandakoei utzi diegu sobratutakoak, pentsa! Izugarria izan da"*.



# TTIPI-TTAPAk estreinatu du bere edizio elektronikoa

**Ordenagailua Internet sarera lotuta daukan edozein pertsonak, aurrerantzean, TTIPI-TTAPA DIGITALA ikusi ahal izanen du bere ordenagailuaren pantailan, paper gaineko TTIPI-TTAPAren edizio elektronikoa, alegia. Interneten gure arrastoa hartu nahi baldin baduzu, hauexek dira gure helbideak:**

Web orriak: **//www.encomix.es/ttipi-ttapa**
Posta elektronikoa: **ttipi@encomix.es**

hamabost urte pasatu dira TTIPI-TTAPA aldizkariaren lehen alea karrikaratu zenetik. Hamabortz urte hauetan nabarmenki haunditu eta hedatu da, maila guzietan, lagun kuadrila baten amets gisa sortu zen aldizkaritxoa. Idazmakina eta letraset-a erabiltzetik ordenagailuak eta modem-a erabiltzera pasatu gara, 500 aleko tirada izatetik 6.300ekoa izatera, urtean 3-4 aldizkari karrikaratzetik hamabostero egitera, eta hemendik aitzinera, paperezko edizioaz gainera, edizio elektronikoa ere jarriko dugu erabili nahi duenaren eskura Nafarroako Internet Elkartearen laguntzarekin. Errate batera-







**TTIPI-TTAPAn teknologiarik berriena jarri dugu euskararen eta herritarren zerbitzura. Orain, ideki zaigun aukera berri honi ahalik eta probetxurik haundiena ateratzea da kontua, argi baitago, irekita dagoen dimentsio berri honi esker komunikatzeko eta informatzeko ohiturak nabarmenki aldatuko direla guztiontzat luze gabe.**

ko, bertakoak izanik eta lana, ikasketak edo bertze edozein arrazoirengatik gure herriotatik kanpo bizi diren lagunek, hemengo aktualidadea puntualki jarraitzeko aukera izanen dute aurrerantzean TTIPI-TTAPAren Interneteko edizioari esker. Kontutan hartu behar da, gainera, Internetek bi norabide dituela, eta informazio hartzailea informazio emaile ere izan daitekeela.

# Zer da Internet?

Internet mundu osoan hedatuta dagoen saretzarra da. Berez, telefono harien bitartez lotzen diren ordenagailuek osatzen dute aipatu sarea, eta bere bitartez informazioa bidali eta hartu egiten ahal da.
Adibidez, Lekarozko ikasle batek eskolako lan bat egiteko behar duen informazioa bilatzen ahal du estatuko liburutegi desberdinetako dokumentazio fondoetan, edo Kaliforniako Downey hirian bizi den Etxalartarrak TTIPI-TTAPAko lerro hauek irakur ditzake bere sorterriko senideek egin duten bezalaxe.

## Behar den ekipamendua

Ordenagailua, telefonoa eta modema behar dira. Gaur egun saltzen diren ordenagailu gehienak Internetera konektatu ahal izateko prestatuak heldu dira.
Horretaz gain, sarean sartzeko Internet zerbitzua eskaintzen duen *zerbitzari* batekin kontratua egin beharra dago. Zerbitzari guziek antzerako zerbitzua eskaintzen dute eta ordaintzeko modua ere antzerakoa dute. Dena den, mugarik gabeko zerbitzuak ere egon badaude. Gaur egun 3.500 pezeta eta 4.000 pezeta artean egon daiteke zerbitzaile horiei hilabetean ordaindu beharrekoa. Horrek Internet-en nahi adina nabigatzeko aukera ematen du. Azkenik telefonoaren gastua da gelditzen dena. Deia noranahi izanik ere, San Frantzisko edo Elizondo errate baterako, deilokala balitz bezala kobratzen du Telefonicak: 139 pezeta orduko, eta arratseko 8etatik goiti eta asteburuetan 109 pezeta orduko.

## Erabilgarritasuna

Alor desberdinetako erakunde, enpresa, profesional eta ikasleak dira momentuz jokurik gehien ateratzen diotenak. Izan ere, Interneten erabiltze-maila gure inguruan sobera hedatua ez baldin badago ere, gero eta gehiago dira ikasleei Internet erabiltzeko aukera ematen duten eskola eta unibertsitateak.
Dena dela, jende artean Internetari buruzko ezagutza areagotzeko, Internet elkarteak sortu dira han eta hemen. Nafarroan, adibidez, Nafarroako Internet Elkartea dago. Beronen berri edo bertze edozein zalantzari buruzko argibiderik nahi izanez gero, beraiekin jar zaitezke kontaktuan: Nafarroako Internet Elkartea / Olibako Monastegia, 5 Behea / Iruñea / Tfnoa.: 948.260894.

## Internet zerbitzuak

*Web orrialdeak* asmatu zirenetik hasi da egiaz ezagutzen Internet. Hauen bidez erabiltzaileak testuak, grafikoak, argazkiak, bideoa eta soinua har ditzake. Horretaz aparte, Posta Elektronikoa, Eztabaida Taldeak, IRC... eta bertzelako zerbitzuak ere badaude.

## Lankidetzan oinarritua

Internetek duen berezko filosofia lankidetzan oinarritua dago eta ez dago zerbitzua gobernatzen duen agintaritza zentralik. Sare guztiak euren buruaren jabe dira. Bertzalde, erabiltzaile bakoitza izan daiteke, aldiberean, informazio emaile eta zerbitzu hartzaile. ■

**:tipi-ttapa**

HAMABOSTEKARIA

.EGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa ke
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
ttp://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es

**uzendaria:** Joxemanuel Iri-ien. **Publizitatea:** Miren Kar-ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor rozena, Joxemanuel Irigoien. **dministrazioa:** Amaia Goia. **redakzio taldea:** Pello Ape-txea, Juainas Paul, Kristina Bo-, Bittori Telletxea. **Berri-naileak:** Joseba Azpiroz, Este-n Arozena, Juana Mari Saizar, nhoa Mutuberria, Iban Isasi, ema Aldabe, Patxi Otxandore-, Ixabel Maia, Josune Etxe-ste, Pablo Mendiburu, Joseba arabide, Alizia Olaizola, Mar-ri Etxenike, Koro Irazoki, Mi-l Gerendiain, Jacqueline, Eli-bet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-r Txoperena, Pello Apezetxea, or Arozena, Kristina Boan. **olaboratzaileak:** EHNE Nafa-a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-a, Joxe Javier Etxeberria, Aran-a Zabala...

**primategia:** Graficas Ona.

***pi-ttapa**k ez du bere gain har-en derrigorrez, aldizkarian adie-zitako erranen eta eritzien eran-ukizunik.

**akunde Laguntzaileak:** Be- Leitza, Goizueta, Areso, Baz-n, Urdazubi, Zugarramurdi eta rako udalak, Bortzirietako Eus-ra Mankomunitatea, Malerre-ko Zerbitzu Mankomunitatea, garramurdiko Akelarre Elkar-a...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**




GAURKOTASUNEKO GAIA

## Bertako produktuen feriak

### Gustora ibili gara herri batean eta bertzean



Mª Jesus LARRETXEA
Gasnagilea. Elizondo

Donezteben, Elizondon eta Beran ibili ginen, eta egia erran, arras ongi. Bertze herriekin konparatuz, Elizondon aise jende gehiago ibili zen, eta Beran ere dexente. Beharbada jende gutien Doneztebeben ikusi nuen.

Herri batean eta bertzean ere, erostera hurbiltzen ziren gehien gehienak turistak ziren, nere idurikoz bederen. Bertakoak guti. Eta hemengo gasnak ezagutzen ez dituztenez lehenik probatu egiten dituzte eta gero animatzen dira erostera. Aurtengo lehenbiziko aldia izateko arras ongi izan da, gu bederen aski gustora ibili gara.

Gainerakoan, gasna gehienak etxetik saltzen ditugu. Baditugu Elizondon tienda batzuk gure gasnak saltzen dituztenak, bainan gehien-gehiena etxetik saltzen dugu, gehiena bertako jendeari eta baita turistei ere. Urtero gehiago egiten ditugu, eta halere, den denak akitzen zaizkigu tenore hontan. Aurten 2.500 kilo egin ditugu eta dagoenekoz denak salduak ditugu. Orain ardiak erditzen hasiak zaizkigu, eta tira, betiko martxan sartuko gara hemendik aitzinet.

### Lehenik bertako produktuak saltzeko legeak egokitu behar dira



Mikel LASARTE
EHNE-Nafarroa

Baserriko produktuak preziatuak eta estimatuak dira, baina ez dute behar adinako bultzadarik. Bide komertzialak extuak dira bertako produktuentzat. Errazagoa da atzerriko produktuak erostea. Masifikazioa eta prezio baxuak dira egoera honen arduradunak. Ondorioz, baserriko produktuek etxean jarraitzen dute, nagusiki. Zaila da multinazionalekin konpetitzea. Beste bide batzuk ireki behar dira. Merkatuen bidez egiten den salmenta zuzenak aukera onak eskaintzen ditu baserritarren ekonomia bultzatzeko. Baserritarra ezin da produktu-hornitzaile bakarrik izan; kontsumitzaileengana hurbildu behar du kalitatezko produktuak eskainiz behar adinako salneurrietan. Feriak egokiak dira horretarako. Zoritxarrez, ferietan parte hartu ahal izateko sanitate arau estuak bete behar dira. Esaterako, zonako 500 artzaietatik 11 edo 12 gasnagilek bakarrik saldu dezakete baldintza guziekin. Gure ustez merkatuek zabaldu egin behar dizkiote ateak bertako produktuei. Posiblea da, bainan lehenik legeak egokitu behar.

### Herri ttikien bizi kalidadea hobetzeko baliagarriak



Patxiku IRISARRI
Altxata Elkartea. Etxalar

Lehen berebiziko garrantzia zuten ez baitzen salerosketarik egiteko bertze modurik, bainan dendak agertu ziren eta feriak poliki-poliki desagertzen joan ziren. Azkeneko urte hauetan berriz, sumatzen da feriek gorakada ttiki bat egin dutela.

Gorakadaren arrazoiak bi zatitan banatuko nituzke:

1.– Kultur Elkarte bezala, ohiturak berreskuratzea eta herriari bizia ematea, feri hauek ekartzen duten besta giroarekin.

2.– Aukera ematea, alde batetik, herriko eta inguruko artisau eta saltzaile ttikiei beraien lanak eta produktuak erakusteko eta saltzeko. Eta bertze aldetik, jende guztiei kalidadeko gauzak ikusteko eta erosteko aukera ematea, horrela,saltzaile-erosle arteko harreman zuzena indartuz gainera.

Bukatzeko erran bi arrazoi hauek atseginago egiten dutela herri ttikietan bizitzea eta aldi berean hobetzen dutela herri osoaren bizi kalidadea.


**ARTEKARI**
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

## BOTA BERTSOA



### *Berriz eskolara*

**Ekhine ETXEPETELEKU**

Doinua: Ligoi bizitza

*Uda pasata berriz hasteak*
*nahiz sortzen digun negarra*
*ikasitzea bihurtu zaigu*
*gazteon halabeharra*
*negu guztia liburuekin,*
*ze bizimodu kaxkarra!*
*gorde dezagun indarra (bis)*
*eta guztia gainditutzeko*
*erakutsi dugun garra*
*etorkizuna irabazteko*
*hau baita modu bakarra (bis).*

*Berriro ere ikastetxera*
*berriz liburu artera*
*berriro ere maixu zitalen*
*garraxiak jasatera*
*etxeko lanen ta azterketen*
*presio dena gainera*
*eroak bihurtzen gera (bis)*
*dena ekainan gainditutzeko*
*egingo dut saiakera*
*datorren uda igarotzeko*
*festa batetik bestera (bis).*

## IRAKURLEAK MINTZO

### Leitzako alkateak, Mikel Ilarregik (HB), honako hau adierazi nahi du:

1.- **Samina eta gaitzespena:** Leitzako pestetako egun haundian gertatukoaren aurrean pertsonalki nere samin azaldu nahi dut; eta alkate-ordea denak izan zuen jokaeraren aurrean, bere ideologia politikoa aparte utziz, bere jokaera harroarengatik, arma bat eskutan balkoi batetik tiroka aritu zenean plaza guztiaren aurrean, oraindik ere leitzar askok bihozminean dituzten garaiak gogoraraziz.

2.-**Nere zorionak:** Nere zorionak adierazi txistulari eta dantzariei, pestak bertan ez lehertzea lortu baitzuten dantzan jarraitu zutenean, eta zorionak Leitzako herriari orohar erakutsi zuen heldutasunagatik.

3.- **Gertaera larriak eta azterketa:** Alkatetza honi ez zaio egokia iduritu batzar berezia deitzea presaka eta pestatan, izan ere gertatutakoak denon arteko eztabaida eskatzen baitu eta azterketa lasai bat, pesta egunetan emanen ez litzatekeen giroan, alegia. Gertaera larriak direnez, azterketa merezi dute, eta azterketa hori eman behar bada emanen dela adierazi nahi dut, baina momentuko berotasuna epeltzen denean eta udal korporazio osoa bertan izaterik duenean.

4.- **Salaketa politikoa:** Gertatutakoaren berria zabaltzerakoan, alde batekoen ahotsa eta akusazioak bakarrik jaso, baina beste iritziak eta balorazioak lotsarik gabe isildu dituzten komunikabide horiek salatu nahi ditut.

5.- **Heriotz mehatxuak:** Jakinarazi eta salatu nahi dut ere egunotan jasotzen ari diren heriotz mehatxuak alkatearen aurka.

Leitzan, 1996ko aguztuaren 13a.

MIKEL ILARREGI
LEITZAKO ALKATEA

### Erasoak Aresoko herritar baten kotxearen kontra

1996ko aguztuaren 20tik 21era, gauean, Aresoko herritar baten kotxe batek eraso bat jaso zuen bere etxe ondoan. Norbaitek 20 kiloko harri bat bota zion gainera, kotxearen kapota izurratuz.

Festen ondorioak izango dira hauek. Arrazoi gutxi izango dituzte bainan beren erara pentsatzen jartzen bagara, badakigu sokatirakoek ireki zuten txozna dela arrazoi guztia. Hori eta bertan ibili den jende multzoa, bertan dastatzen ala laguntzen ahal zuen bezala.

Eta arazoa nondik datorren pentsatzen jartzen bagara badakigu gazte artean sortu den giro bikaina dela amorrazio gehiena ematen dien gauza. Dena sokatirako mutilek txozna bat ireki dutelako, bestela ezin dutelako aurre egin urtean zehar edukitzen dituzten gastuei eta dauzkaten dirulaguntzak ez direlako nahikoak. Bainan dirulaguntzak elkarte batzuetatik datorkie, edo partikular batzuengandik, oraindik ez dute pezetarik jaso udaletxetik.

Aurten udaletxeak, gainera, ukatu egin die gazteei herriko tabernan parte hartzea. Egoera honetan erabaki zen txozna bat irekitzea bere kontura, eta nonbaitte, ondorioak jasotzen hasi gara. Baina atzo erasoa herritar honen kontra izan baldin bazen, herriko zenbait kidek ez dute ikusten pertsona horren kontrako eraso bat, herriko zenbait lagun kontrako eraso bat dela eta batez ere, sokatirako kideekin adiskidetasuna erakutsi duten haientzako.

Eraso hau egin detenek herriko gaztediak daukan etorkizunaren kontra daude, eta gainera ukatzen diete beren eskubideak.

JOXEPI MARZOL
ARESOKO GAZTE TALDE BATEN IZENEAN



LESAKA



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

KOLABORAZIOAK

Juainas PAUL Behinpin Taldeko kidea

# Zabor tratamenduaren inguruan, hausnarketa

Askotan pentsatu izan dut gure eremu hau geldiegia dela, sakabanatuak bizi garela eta elkartzeko batere kostunbrerik ez dugula. Etxean, gehienez herrian (bestetan) akitzen zaigu mundua. Ezagunekin lagun, beharrik baldin badute; etsai, suertatzen bada. Munduarekin dugun ardura laister amiltzen zaigu.
Hitz gutxitan errateko: bertzeek egin dezatela eta nik kritikatuko dut, kexatu eginen naiz hau, hori eta hura gaizki egin baitute!

**Gu geu izanen gara errudunak. Errudun 'moralak' gainera, ahal genuena egin beharrean momentuko esku-garbitzea aukeratu baitugu.**

Zaborren aferarekin, nere idurian, gauza bera gertatu da. Laberik ez dugula nahi guztiok garbi dugu, gure hurbilean bederen, ...urrutixeago baldin bada?
Zabortegiak? Horrelako pila egiten ditugu, maiz, paraje xoragarrietan, gureak ez diren mendi-erreketan. Izorra dadila! ...nor?
Behinpin Taldeak sumatu zuen zerbait gehiago zegoela. Malerrekan 60 lagun inguru bildu bait ginen... Bortzirietan, Lainope zela eta nolabaiteko 'mobida' lainotsua, bilketa selektiboan abiatu ziren... Baztanen, salaketak eta gogoak zeudela zirudien...
Birziklatzea? Karkar? Apostuak indarrak biltzea eskatzen zuen, jai dugu! Egin ditugun saiakerek, zenbait agintariren errezeloak eta porrota ekarri digute: ezta alde-aldekoak ere ez bait gara elkartu.
–Nik Iruñerrira eramaten ditut paperak.
–Nik, berriz, lagun batekin bidaltzen ditut ez dakit norat.
–Bai, bai. Arbolena 'pasada' bat baita!
Berriz ere aterabide pertsonalak.
Bitartean –eta 'futurismo' egiten hasten naiz–, Mankomunitate arduradunek biderik errazena bilatu beharko dute. Aukerak, Nafarroako Gobernu berriaren espektakulua dela eta, Iruñerriko Mankomunitatearen lehendakaritza korrupzio-zaborrez zirtaturik omen dagoela-eta, geldirik daude orain, bainan izen propio bat hasi da irudikatzen: ***zaborren esportazioa!***
Gongora tapaegina utziko dugu, baina gu lasai, izorra dadila filosofiarekin bat datorrena! Luzera, garestia suertatuko zaigu, eta horrek protestak ekarriko ditu. Ahulak, dena den. Gu geu izanen gara errudunak. Errudun 'moralak' gainera, ahal genuena egin beharrean momentuko esku-garbitzea aukeratu bait dugu. Labe erraldoia merezi dugu!

Jose M. IRAZOKI Berako Toki Ona Institutuko zuz.

# LOGSEk dakarren Lanbide Heziketa

Teknikaren abantzuak lana egiteko manera aldatu egiten du. Beraz, lanbiderako prestakuntza egokitu egin behar da. 1970etik FP-1 eta 2ak osatzen zuten Lanbide Heziketa. REMek Modulo 1, 2 eta 3 izenez gauzatu zuen, eta esperientzia honen ondorioz, LOGSEk honela bereziko du hemendik aitzina:

**Balorazio bat egiterakoan ni baikorra naiz. Aurtengo eskaintzak hemengo beharrak betetzen ditu.**

*Giza Berma:* DBH gainditu ez dutenentzat. *Erdi mailako Heziketa Zikloa:* DBH gaindituta. *Goi Mailako Heziketa Zikloa:* Batxilergoa gainditua.
Hau guztia Heziketa Erreglatuari dagokio eta titulua lortzen da. Baina kontutan hartu behar da Lanbide Heziketa Okupazionala ere hor dagoela lanean ari direnentzat, eta modulokoa eginez gero, Hezikeja Zikloen konbalidazioa lor daitekeela.
Antolakuntza berri honek baditu abantaila batzuk:
1.– Zer ikasi, beranduago erabaki behar da, 16 edo 18 urtetan.
2.– Irakaskuntza, hobeki eta errazago egokituko da lan munduko beharretara.
3.– Etxetik kanpora joan behar izanik ere, urte betez edo biz izanen da.
4.– Tituluak moduloka lor daitezke, Lanbide Heziketa Okupazionalaren bidez.
Aurten beheko koadroan ageri den bezala gauzatuko da ikasturtea, bainan gerorako eskaintza idekia dago behar eta matrikulazioaren arabera.
Balorazioa egiterakoan, baikorra naiz. Aurtengo eskaintzak, hemengo beharrak betetzen ditu; jakina, batzuk zonatik kanpora joan beharko dute ikasi nahi dutena hemen ez dagoelako, bainan ezinezkoa da gure ikasle kopuruarekin eskaintza zabalagorik ematea. Bertzalde, malgutasun osoa dago irakaskuntza beharretara egokitzeko. Gainera, baliabideak zabalik daude, enpresa eta sindikatuek langileen formakuntza gauzatzeko. Etorkizunari begira, gure esku dago (enpresari, sindikatu, langile, udal, guraso...) nola gauzatu eta zertan hezi nahi ditugun gure gazte eta langileak. Bakoitzak har dezala bere ardura.

**96-97 ikasturterako eskaintzak Baztan-Bidasoan**

| | |
|---|---|
| **GIZA BERMA** | |
| Operario de Soldadura | Lekaroz-Elizondoko Institutuan |
| Auxiliar Mantenimiento Electromecan.ico | Lekaroz-Elizondoko Institutuan |
| Operario Actividades Forestales | Oronozko San Martin Eskolan |
| **ERDI MAILAKO ZIKLOAK** | |
| Soldadura y Calderería | Lekaroz-Elizondoko Institutuan |
| Gestión Administrativa | Lekaroz-Elizondoko Institutuan |
| Instalación y Mantenim. Electromecanico | Berako Toki Ona Institutuan |
| Comercio | Berako Toki Ona Institutuan |
| **GOI MAILAKO ZIKLOAK** | |
| Administración y Finanzas | Lekaroz-Elizondoko Institutuan |
| Mantenimiento de Equipo Industrial | Berako Toki Ona Institutuan |

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 96-IX-1

*«Gure musikak ez du mugarik eta ez du estilorik, bakoitzak bere gustoak ditu gainera».*
**Otsondo 602**
Musika taldea
Diario de Noticias 96-IX-1

*«Ez da harrotzeagatik, baina gasna gehiena dezentea dugu. Jendea arras kontent izaten da gurekin».*
**Begoña Etxandi eta Lourdes Irigoien**
Amaiur Gasnategikoak
Nafarkaria 96-VIII-30

*«Liburuko erranairuak. oraindik erabiltzen dira Baztanen helduen artean, interesgarriak dira zeren hemen duzu hitza herriak erraten duen bezala. Beharrik nik bildu ditudala, berrogei urteren buruan galduko baitira»*
**Mariano Izeta**
Elizondokoa
Nafarkaria 96-VIII-23

*«Hiztegi dialektala denez , lana sailkatu eta hiztegi moderno batek duen itxura eman nahi izan diot» .*
**Paskual Rekalde**
Amaiurkoa. Itzultzailea.
Nafarkaria 96-VIII-23

## 11 GALDERA LABUR



**Ramón ETXARRI**
Erretiratua
Areso

- **Ramón edo Erramun?**
- Ramón.
- **Zer iduritzen zaizu aurten egiten ari duen uda?**
- Aspalditik egin duen txarrena dela, batez ere abuztua.
- **Obretako lana edo baserrikoa?**
- Obretakoa.
- **Beldur diozu lanari?**
- Sekulan ez.
- **Bertsolaririk onena?**
- Egaña.
- **Eta pelotaririk onena?**
- Retegi IIa.
- **Haragia edo arraia?**
- Haragia.
- **Zer etorkizun ikusten diozu gaztediari?**
- Txarra. Lanik ez eta gastuak haundiak.
- **Festak, iñauteriak edo zer?**
- Ihotik.
- **Zerbait esan nahi diezu herriko umetxoei?**
- Gurasoen esanak egiteko, eskolan ikasteko eta pilotan eta dantzan segitzeko.
- **Punttu bateko bertsoa...**
- Aurtengo festak oso ongi pasa ditut





• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*

Eztegara 19 • ✆ 63 02 40
**BERA**




ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Marithe François Girbaud
- Bonaventure
- Replay
- Diesel
- Levi's
- Lacoste

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

*Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN*

☞ OSASUN LARRIALDIAK

# Astelehenetik ortziralera ez da anbulantziarik izanen Bortzirietan

## Boluntario nahikorik ez dagoela, eta DYA Elizondora lekualdatuko da

DYA erakundeak Bortzirietan duen anbulantziak Elizondotik eskainiko du bere zerbitzua astelehenetik ortziralera, Lesakako egoitzan boluntario nahikorik ez dagoela eta. Elizondon boluntario dexente daude eta bertatik eginen da aste tarteko zerbitzua. Ortziraletik igandera Lesakan izanen da anbulantzia.

Modu honetan, Bortzirietako Larrialdi Zerbitzuak okerragora joko du, anbulantziak Doneztebetik edo Elizondotik etorri beharko baitute. Lehendik ere, gaizkixkoen atenditua zegoen eskualdea dela onartua zuen Nafarroako Gobernuak, baina momentuz ez zaio soluziorik topatu egoera negargarri honi. Jose Mª Irazoki DYAko laguntzailearen erranetan, *«Nafarroako Gobernutik larrialdietarako anbulantzia paratzea eskaini diete Lesaka eta Berako bonberoei, baina hauek ez dute onartu. Anbulantzia bonberoen esku izatekotan, hain premiazkoak ez diren larrialdietarako izatea proposatu zuten Berako su-hiltzaileek»*.




**Larrialdiei dagokienez, Bortziriak gaizki atenditua dagoela onartu arren Nafarroako Gobernuak ez du soluziorik topatu oraindikan**

Argazkia: DYAk utzia

### *«Bortzirietan 30 boluntario behar dira anbulantzia mantentzeko»*

**■ Zer dela eta Bortzirietan ez da anbulantzia zerbitzurik izanen astegunetan?**

❑ Jende falta da arrazoi nagusia. Eguneko 24 orduak normalki kubritzeko 30 boluntariotik goiti beharko genituen hemen eta gaur egun, zortzi bertzerik ez gaude. Emergentzia izan eta ezin ateratzea suertatu zaigu auniztan, nahiz eta anbulantzia egoitzan aparkatua egon.

**■ Soluziorik badu egoera honek?**

❑ Nafarroako Gobernuak boluntarioak nahi ditu baina hauek aspertu egiten dira, lan bat izaten dute... Egokiena Nafarroako Gobernuak zerbait ordaintzea izanen zen.



**Jose Mª IRAZOKI • DYA**

## Ehizi kotoak derrigorrez elkartzeko espedientea ireki da

Igantziko kotoa eta Doneztebeko eremua inguruko ehizi kotoekin derrigorrez elkartzeko espedientearen hasiera onartu berri du Nafarroako Gobernuak.

Donezteben kasuan, herriak ez du kotoa osatzeko beharrezkoak diren 2.000 hektareak eta udala inguruko kotoekin harremanetan paratu bazen ere ez zuen emaitzarik lortu. Honenbertzez, Zubieta-Ituren-Elgorriaga edo Donamaria-Beintza-Oitz-Urrotzko kotoekin elkartzeko derrigorrezko espedientea ireki da. Bertze honenbertze gertatu zaio Igantziri. Hau Etxalar, Arantza edo Lesakako ehizi kotoekin elkartuko da.



## San Agustin Eguna ospatu zuten Artikutzan

Abuztuaren 28a besta eguna izan zen Artikutzan eta Goizueta, Arantza eta Lesakatik hainbat jende hurbildu zen ospatzera. Bertzalde, Donostiako Udalak Artikutza Mendi Babeslea izendatzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Izendapen honekin, Artikutzak esku pribatuetan –Donostiako udalarenean, alegia– segituko luke eta artzantza lanak mugatu edo debekatuko lirateke, Goizuetako artzaien kalterako.

## Aupa irakurle!

Esku artean duzu **ttipi-ttapa**ren ale berri bat. Nabaritu izanen duzu zenbait aldaketa izan direla, bai itxura aldetik, baita eduki aldetik ere –zenbait sekzio indartu egin dira eta bertze batzuk sortu–. Irakurle eta laguntzaile zaren aldetik zure proposamen guztiak ongi etorriak izanen dira. Milesker.

# BERA

## 116 milioi ur-zikinen tratamendu plantarako

116 milioi pezeta gostako da Berako ur-zikinen tratamendu planta egitea Nilsa elkarte publikoak aurtengo inbertsio plangintzan aurrikusi duenaren arabera. Proiektu hau Plan Zuzentzailearen barnean kokatua dago.

Lanak oraindik kontratatu gabe badaude ere, inbertsio hau %90ean Herrietako Azpiegitura Lanen Plangintzatik ordainduko da eta gainerako %10a Nilsak kudeatzen duen saneamendu-kanonetik. Berako depuradoraren kasuan, gainera, Europatik ere izanen da laguntzarik, Feder plangintzaren bitartez.

## Agerra mendi taldearen irteerak

Irailaren 14 eta 15ean Pirinioetako Posest mendira (3.369 m.) joanen dira. Irailaren 22an berriz, Oza-Candanchu mendi ibilaldia eginen dute. Bazkaria Candanchun eginen dute eta joan-etorriak autobusean eginen dira. Apuntatzeko deitu 630362 telefonora (Xabier).



**60 igerilari Gure Txokoaren VI. txapelketan**

Eguraldi kaxkarrak aurtengo udan sobera lagundu ez badu ere hirurogei igerilarik parte hartu zuten abuztuaren 31n Gure Txokoa igeriketa txapelketaren seigarren edizioan. Argazkia: Joxemanuel

# Euskal Herriko Akuarelistak Kultur Etxean ikusgai

Irailaren 22ra arte zabalik egonen da erakusketa

KRISTINA BOAN

Irailaren 7tik 22ra zabalik izanen da Kultur Etxean 'Euskal Herriko akuarelistak' izeneko erakusketa. Egunero, arratsaldeko 5etatik 8etara zabalik izanen dira erakusketa aretoko ateak. Kultur ekitaldi hau Gure Txokoa elkarteak antolatu du, Urruñako Selarua eta Berako Herriko Etxearen laguntzarekin.

Mugaz bi aldeko hogeitamar margolariren (Iparraldeko 23 eta Hegoaldeko 7) ehun akuarela inguru zintzilikatu dira erakusketa honen laugarren edizioan. Lehenbiziko aldiz ikus daiteke Hegoaldean, orain arteko hiru edizioak Urruñan burutu baitira.

### Logotipo lehiaketa

'Erausian' Berako gazteen euskara taldearen logotipo lehiaketara lanak aurkezteko epea zabaldu da. Bortzitarrei irekia da eta lanak urriaren 15a baino lehen egon behar dute TTIPI-TTAPAn eta 25.000 pezetako sari bakarra izanen da. Taldearen aurkezpena udazken honetan eginen dute.

## ttipi flash

### Alkoholiko Anonimoak

Irailaren 14an, arratseko 8etan hitzaldi publikoa burutuko du Alkoholiko Anonimoak erakundeak Kultur Etxean.

### Kultur Etxea osatzeko dirulaguntza

Kultur Etxeko erakusketa aretoa osatzeko 246.000 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteriako sailak. Dirutza hau aurrekontu osoaren %60a da.

### Matrikulazioa

Irekita dago Toki Ona institutuan matrikula egiteko epea DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketan 'Mantenimendu elektromekanikoa'. Klaseak irailaren 18an hasiko dira.

### Illekuetako bestak

Asteburu honetan ospatuko dira Santakrutz bestak. Xehetasun gehiago agendan (30. orrialdea).

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA



LABE ZAR
© 631076 • BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

AHORRO-BERRI
janaridenda
Legia 4 • BERA
Igande goizetan irekia

## LESAKA

# Udako balantze hagitz ona egin du Tantirumairu dantza taldeak

Hainbat leku garantzitsutan eskaini dute beraien emanaldia

AITOR AROZENA

Tantirumairu dantza taldeak uda honetan egin dituen ateraldiak hagitz positiboki baloratu ditu, normalean izaten ez diren leku garrantzitsuetatik deitu baitituzte aurtengoan. Honela, uztailaren erdialdean Frantziako Gennetines hirian egin zen Europako VII. Dantza Jaialdian parte hartu zuten eta "*hagitz esperientzia ona izan zen, bai dantza aldetik, baita konbibentzia aldetik ere*" Garbiñe Sarasola arduradunaren erranetan.

Bertzelako ekitaldi inportanteak aipatuz, abuztuaren 24an, Hondarribiako XXXII. txistularien alardean aritu ziren dantzari gisara. Irailaren 4an berriz, Donostiako Euskal Jaiako Nazioarteko festibalean aritu ziren Oñati eta Bielorrusiako talde batekin batera. Emanaldi hau Euskal Telebistatik ikusi ahal izan zen. Urtero bezala, Nafarroa, Gipuzkoa eta Iparraldeko hainbat herrietako bestetan aritu dira.

Udako ekitaldiei irailaren 29an emanen diete akabera, Olaztiko bestetan eginen den Fandango eta Arin-arin erakustaldian. Tantirumairuko dantza irakasleek adierazi dutenez, bertzalde, urrian hasiko da ikastaroa eta hasi nahi duenak, taldeko norbaitekin harremanetan jartzea bertzerik ez du.



**'16 Jazz Eroak' taldeak emanaldi berri bat eskainiko du ortzegun honetan, oraingoan Kasinoan** Artxiboa

### Uda agurtzeko kultur egitarau zabala izaten ari gara

Irailaren 3tik 12ra udako kultur programazioa ospatu da, Bertizko Partzuergo turistikoak eta Cederna-Garalurrek, udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatuta.

Joan den asteartean Irain dantza taldekoak aritu ziren, ortzegunean Elizondoko txistulariak eta ortziralean txaranga. Larunbatean, herriz herri ibili den bertako produktuen feria ikusgai izan zen.

Aste honetan egunero zerbait izan da. Astelehenean Doneztebeko abesbatza, asteartean Tantirumairuko dantzariak, asteazkenean herri kirolak eta ortzegunean 16 Jazz Eroak aritu beharrak dira.

## ttipi flash

**Udal musika eskolan**
matrikulatzeko epea ortziral honetan, irailak 13, akabatuko da. Izen ematea Herriko Etxeko bulegoetan egin behar da goizeko 9etatik 11,30etara.

**San Fermin jubilatu elkartea Larunera**
Irailaren 18an Larun gainera joanen dira jubilatu elkartekoak. Aitzinetik, Erratzu, Izpegi eta Donibane Lohitzune bisitatuko dituzte. Izena emateko epea larunbat honetan bukatuko da eta 3.100 pezeta ordaindu beharko dira.

**Panticosako Balneariora txangoa**
Irailaren 21ean Panticosako Bainuetxera joateko bidaia antolatu da. Liedenan gosaldu ondotik, Jaca, Sabiñanigo eta Biescas bisitatuko dira eta Panticosako bainuetxean bazkaldu. Izen-ematea Marixus dendan egin behar da (3.000 pta).


**LESAKAKO GASOLINDEGIA**

Goizeko 8etatik gaueko 10etara gu geuk zerbituko dizugu
**24 ordutan** automatikoa

Super • Berunik gabekoa • Gasoleo A • Gasoleo B (nekazaritza/kalefakzioa)

Ireki berria

**BERRIZAUN TAILERRA**

• Marka guzitako autoak konpontzen dira
• Errebisioak
• Auto erabilien salmenta

Tfnoa: 637460
Albistur 57 • **LESAKA**

## ETXALAR

# Saratarrekin harremanak estutzen doaz bestetan ikusi zenez

Aspaldikoak diren elkartzeak ez ahantzi nahi

PELLO APEZETXEA

Andremaritako herri-bazkarian 35 saratarrek parte hartu zuten. Baina ez zuten jaten soilik parte hartu, lanean ere gogoz lagundu baitzuten bazkalondoan, eta hainbat orduz herriko bestaz gozatu zuten. Duela hiru urte, beren dantzariekin etorrita, Etxalar-Sarakoen lagunkidezko arratsalde atsegina eskeini ziguten bezala, aurten ere antzeko zerbait errepikatzeko asmotan dabiltza etxalarko gazteak, eta saratarrekin solasetan hasiak dira, noski.



Jostatu ezezik, solasketaldiak ere egiten dituzte haurrek. Argazkimakinak ez zuen solasgaia hartu. Ikasturte berriaz aritu ote ziren?

### Obratarako baimenak eta zergak

Obratarako behar den lizentzia eta ordainduko dena xehetu du Udalbatzak. Lana eta gastuaren arabera sailkatu ditu obrak. Gisa honetara: etxe berriak, zaharren pareta edo pilareak aldatu edo eta idorpe haundiak egiteko, proiektua beharko da presentatu. Teilatua berritze, fatxadak zartatze eta bertze lan ttikiagotarako krokisa aski izanen da. Eta aipatutako klaseko lanengatik kostuaren %2a ordaindu beharko da. Deus ez dute ordainduko: kanpotik pintatzeak eta barrengo berritze lanek, haundiak ez badira.

### Herria edertzeko bortz milioi

Herriko xoko batzuk moldatzeko proiektua aspaldixko hasia zen eta, iduri duenez, betetzeko ordua ailegatu zaio. Cederna-Garalurren bidez horretarako dirulaguntza etorri baita, 5 milioi pezeta, lan guziaren kostuaren erdia.

### Usategietako ehizi postuen enkantea...

Irailaren 14an eginen da. Hasierako prezioak 274.000 pezetatik hasi, garestiena, eta 21.000 pezetarainokoak dira. 24 postu, guzira. Xeheago erranez, hiru ehizaposturen prezioa 200.000tik goitikoa da. Zazpirena 100-200 mila artekoa. Eta merkeenak, 58.000ko hiru eta 21.000ko zortzi dira.


«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

ttipi-ttapa
Gida 96
Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!


© 635290
ETXALAR
HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Proba ezazu gure ostruka plater exotikoa

LEGARRA
Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA
IKASTURTE HASIERAKO ESKAINTZAK
• Espiral koadernoa 80 orri ~~210 Pta.~~ 175 Pta.
• 'Honer' Txirula ~~1.300 Pta.~~ 1.130 Pta.
• DIN A-4 orri uxirak ~~250 Pta.~~ 210 Pta.
• 500 orriko paketea ~~850 Pta.~~ 675 Pta.
• Pilot Boligrafoa ~~275 Pta.~~ 250 Pta.
• Pentel Boligrafoa ~~150 Pta.~~ 135 Pta.
• 16 uztaiko orrien errek. ~~250 Pta.~~ 210 Pta.
• 180 orriko Note-Book koad. ~~975 Pta.~~ 750 Pta.
• Daimon koad. azal gogorra ~~340 Pta.~~ 325 Pta.
• 5 metroko forrua ~~225 Pta.~~ 175 Pta.
• Erregela multzoa ~~475 Pta.~~ 350 Pta.
• AZ artxibadorea kajarekin ~~525 Pta.~~ 425 Pta.

## IGANTZI

# Irailaren 15ean izanen da Mendi Bizikleta ibilaldiaren seigarren edizioa

Hilabete t'erdi iraun du eskolak txukuntzeko auzolanak

OSKAR TXOPERENA

Heldu den igandean, irailaren 15ean, izanen da urtero egiten den mendi bizikleta ibilaldia. Seigarrena segidan da aurtengoa eta joan den urtean 125 lagunek hartu bazuten parte, aurtengoan kopuru hori aisa gainditzeko ilusioa dute antolatzaileek. Laguntzeko borondatea duenak ez du plaza aldera goiz horretan agertzea bertzerik. Zer egినik izanen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, kirol orrialdeetan begiratu.



**Herriko pala txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 3an. Aurten Jose Ramon Etxeberria eta Carlos Irigoienek irabazi diote finala Mikel Eugi eta Jesus Mª Matxikoteri. Bat edo bertze falta baldin bada ere, hor daude parte hartu zuten gehienak.**

### Auzolana eskoletan

Hasi da ikasturte berri bat eta xehetasun ttikiren bat falta baldin bada ere, uda honetan eskolak harroaldi ederra hartu duela erran behar dugu. Zenbait egunetan hamazazpi izatera ere ailegatu da lanean aritu direnen kopurua, ia hilabete t'erdi iraun duen auzolanean. Itxura berria hartu du barrenetik aspalditik egin gabe zeuden hainbertze gauza egin direlako.

### Uda kaxkarra

Aurtengo uda ez dugu eguraldi ederrarengatik gogoratuko preziski, eskuekin kontatzeko moduko eguraldi ederrak egin ditu eta. Egia da herri ingurua inoiz baino politagoa dagoela, baina bada errana eguraldi klase bakoitzak bere tenorea eskatzen duela eta aurtengoz behinipein heldu den udari begira hasi beharko dugu.

Aunitz aldatzen ez badu ez dugu negua akauturik!

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 63 03 70 • BERA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ✆ 637264

koxkonta

Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

TXIRULA
Albistur, 39-K • ☎ 627542 • LESAKA
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

## ARANTZA

# Ikasturte hasiera ailegatu zaie herriko neska-mutikoei

Lehen Hezkuntzakoak hasiak dira eta DBHkoak astelehenean

ELIXABET ETA GARBIÑE

Urtero bezala, ikasturte hasiera ailegatu da uda bukatzearekin batera. Dagoeneko Lehen Hezkuntzakoak (6. maila arte) klasean egonen dira. Irailaren 9an hasi ziren eta ordutegian aldaketa izanen dute aurten, goizeko 9etatik arratsaldeko 4etara arituko baitira orain. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak, berriz, irailaren 16an hasiko dira eta hauen ordutegia, goizeko 9etatik arratsaldeko 5etara izanen da.

Aurten hiru ikasle berri sartu dira herriko eskolan, baina hamarrek kanpora aldegin dute ikastera. Maistra berri bat ere bada eskolan, Amagoia Etxaburu.



Ikasturte berriaren trena hartu dute herriko neska-mutikoek — Artxiboa

### Bestetan giro ezin hobea izan genuen

Giro ezin hobea, jendetza ikaragarria eta abuztu osoan egin dituen egun eguzkitsu bakarrak izan ditugu aurtengo bestetan. Asteazkeneko txupinazoa eta Amabirjin eguneko herriko dantzarien saio bikainaren ondotik, ortziral eta larunbatean izan genuen jendetzarik haundiena, batean Gozategi Anaiak eta bertzean rock kontzertu erraldoia izan baitziren.

## ttipi flash

**Telletxea familiakoei**
izugarrizko tomateak atera zaizkie baratzean. Gure hutsegite bategatik ezin dizkizuegu argazkiak erakutsi. Lastima!

**Ur-zikinen tratamendua**
28.420.000 pezeta erabiliko ditu Nilsak herriko ur-zikinen tratamendurako lanak egiteko, aurtengo Inbertsio Plangintzan ageri denez.

**Trikitilari txapelketa**
Olatz Irigoien eta Leire Amorosek parte hartu dute Nafarroako txapelketan, Lakuntzako kanporaketan. Ez zuten finalera ailegatzerik izan baina beraien beldurra, "*txapelketan azkenak gelditzea*", ez zen bete.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: **63 70 27 LESAKA**

**KIROLAK ZELA**
Altzate 6, ✆ 63 05 98
**BERA**

*EKAITZA kafetegia*
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47
**LESAKA**
Lagunekin elkartzeko toki egokia

*F. MARITORENA*
*Mendi eta loraategi garbiketak*
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - **BERA**



ROMANO dekorazioak
**PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**
- Zolak jartzen ditugu:
  - Kortxoa
  - Moketak
  - Parketa
  - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

## SUNBILLA

# Eguraldiak batere lagundu ez badu ere, inoiz baino jende gehiago ibili da herrian

Lizun gaztandegia, bertzalde, saritua izan da Plentziako lehiaketan

IXABEL ETA JOSUNE



Oporrak pasa eta berriro hemen gaude zuekin, gure herriko berriak idazteko. Hasteko, uda nola joan den aipatuko dugu. Aurtengo uda arras jendetsua izan da, behin ere ez omen da ibili Sunbillan barna aurten hainako jendetzarik. Kanpina gainezka, baita landa etxeak ere. Normalki hutsik egoten diren pisuak eta etxe guztiak bete dira udan.

Eguraldiak, berriz, ez du batere lagundu; abuztuan sei egun bertzerik ez ditu egin eguzkiarekin. Aurten igerilekua gehienek juxtu-juxtuan ikusi dute, baina probatu, guttik.

Bestetan ere, bertze urtetan baino jende gehiago ikusi da eta giro animatua izan da. Su artifizialak jendearen gustokoak izan ziren eta denek ikusgarriak izan zirela erraten zuten. Bestetako azken eguneko afaria ere gustokoa izan genuen sunbildarrek, aski gustora atera ginen eta, hurrengo urteetan, errepikatzeko asmoarekin, gainera.

### "Lizun" saritua izan da Plentzian

Lizun gaztandegiko gaztak laugarren urtez segidan irabazi du Plentziako Sari famatua. Lehen saria, gazta egiteko norberaren artaldearen esneaz gain bertze artzaien ardien esnea erabiltzen duen gazten artean irabazi zuen. Diru sariaz gain, gaztei etiketa bat jartzeko eskubidea izanen dute bertze urte batez.

### Eskolako garbiketa

Eskola garbitzeko, udalak egindako lehiaketa-enkantera aurkeztutako proposamenen artean, Aszension Bertizek ekarritakoa izan da onena.

Beraz, aurtengo ikasturtean bera arduratuko da eskola garbi mantentzeaz.

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Lizun
Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

MariCruz
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



ORDOKI ALTZARIAK

*Kalitatea prezio egokian*
*35 urteko esperientzia zure zerbitzura*

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

**ERAKUSKETAK:** Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
**SALMENTAK:** Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

## DONEZTEBE

# Udala eta San Migeleko bizilagunen arteko afera moldatu da azkenean

Honenbertzez, auzoan egin beharreko lanak laister hasiko dira

TXEMA ALDABE

San Migel auzoko bizilagunak eta Herriko Etxea akordio batera ailegatu ondoren, auzo horretako urbanizazioa udalaren eskuetara pasatu da, azken batzarrean erabaki zenez.

Bizilagunek dohainik eman diote Herriko Etxeari, baldintza batzuk betetzen baditu. Honela, errepidea bitarteko zolaberritzea eta espaloiak egin beharko ditu udalak. Eraberean, katastroaren arabera neurtu beharko da eremua. Bizilagunek eskatutakoaren arabera, zona zabalena aparkalekuak egiteko eta asfaltatua ez dagoena berdeguneak egiteko erabili beharko litzateke. Inguruari itxura politagoa emateko farolak paratzea ere eskatu dute. Azkenik, udalaren eta bizilagunen arteko konpromezuak notario aitzinean eskrituratzea eskatu dute, horren gastuak Herriko Etxearen gain izanik. Bidea urbanizazioan akitzea eta aitzinera ezin luzatu ahal izatea ere eskatu zuten bizilagunek.



San Migel auzoko urbanizazioa udalarena da, Herriko Etxeak San Migel auzoko lagunen baldintzak onartu ondotik Artxiboa

Herriko Etxeko ordezkariek baldintza hauek ahobatez onartu zituzten, nahitaezkoa baita urbanizazioa udalaren esku egotea San Migel auzoko ur-hornidura, saneamendu eta zolaberritze lanei ekiteko. Honela, bizilagunen proposamena onartu bezain laister lan horien proiektu teknikoa onartu zen eta lanen adjudikaziorako lehiaketa ere lehenbailehen egitea erabaki zen.

### 'Euskara Lau haizetara' kanpaina

*'Euskara Lau Haizetara'* lemapean Malerrekako Euskaltegiak (IKA) ideki du 1996-97 ikasturterako matrikulatzeko kanpaina. Euskara ikastaroak egiteko eskaintza zabala dute, bai ordutegi aldetik, nola maiztasuna eta iraupen aldetik ere. Beraiek dioten bezala, "*aukera paregabea gure hizkuntzari laguntzeko*". Irailaren 30ean akituko da izena emateko epea. Informazio gehiago lortzeko Malerrekako Euskaltegira joan edo 451555 telefonora deitu.

## ttipi flash

### Eskolarako dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailak bi dirulaguntza eman dizkio Doneztebeko eskolari. Alde batetik 458.000 pezeta teilatua moldatzeko eta bertzetik 598.000 pezeta DBHko zentroaren mantenimendurako.

### Eskualdeko emakumeen pala txapelketa

Malerreka, Bortziriak eta Baztango emakumezkoen pala txapelketa irailaren 21ean hasiko da Doneztebeko frontoian. Izen ematea 450413 telefonoan.

### Kanposantuaren zabaltzea

Kanposantuan 92 pareta-hilobi edo nitxo egiteko lanen kontratazioa hutsik gelditu da, proposamen ekonomikoa hasierako 10.103.566 pezetako preziotik gorakoa zelakoz . Udalak lehiaketa berri bat egin du.

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

## ITUREN

# Joaldunen Eguna irailaren 21ean ospatuko da

### Abuztuan ur-mozketak izan dira

IBAN ISASI

Irailaren 21ean ospatuko da aurtengoan Joaldunen Eguna. Urtero bezala, bazkari haundi baten inguruan oinarrituta dago, adin guzietako joaldunei omenaldia egiteaz gain.

Goizeko 10etan Ameztiatik abiatuta Iturengo herriko plazan bukatuko da joaldunen ibilaldia. Bitartean, herriko trikitilariak karrikaz karrika ibiliko dira. Aizkora apostua jokatuko da eguerdi aldera eta apostuan arituko direnak Patxi Mindegia eta Arria II.ren semea, Jaunarena eta Loiarte zubietarren kontra. Ondotik, Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak arituko dira, bazkalondoan bezala. Arratsaldez eta gauez, dantzaldia izanen da *Etzakit* taldearekin .



**Joaldunek bere eguna izanen dute aurten ere**

Aipatu behar da, Nafarroako Gobernuaren eta Malerrekako Mankomunitatearen dirulaguntzaz datozela bertsolariak eta trikitilariak 1996ko Kultur Zikloaren barnean.

#### Ur-mozketak abuztuan

Nahiz eta aurtengo uda azken urteetan baino aunitzez euritsuagoa izan, ur mozketak izan dira ia-ia egun guzietan Iturengo auzoan. Arratseko 12ak inguruan moztu eta goizeko 7ak arte egon gara hilabete horretan. Era guzietako arrazoiak suposatu dira, ur-mozketa hauei esplikazioa emateko. Dena den, ura depositoan sartu ahala ateratzen zela aipatu zen.

## ttipi flash

**Narbarteko**

Izal ingurua hobetzeko 2.168.400 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuko Ingurugiro sailak. Dirutza honek, aurrekontuaren %75a suposatzen du.

**Ia 129 milioi Donamaria eta Iturengo uren tratamendurako**

Nilsa elkarte publikoaren Inbertsio Plangintzan ageri denez ia 129 milioi pezeta erabiliko dira Donamaria eta Ituren-Ezkurrako uren tratamendurako. Zehazki, Donamariako emisarioa eta tratamendu planta egiteko 76.720.000 pezeta beharko dira eta 52,2 milioi Ituren-Ezkurrako depuradorarako.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

**ttipi-ttapa**

*6.300 harpidedun*
*21.000 irakurle*

Baztanen...

ESTHER

LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...

IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

# MALERREKA






**Koteto Ezkurra doneztebarrak hasiera batean pentsatzen zena baino lan gehiago egin behar izan zuen Eizagirreren kontrako finalean, joan den urtean bezala txapela eskuratu ahal izateko**

## Koteto Ezkurra buruz-buruko erremonte txapelduna

Bigarren aldiz segidan irabazi du Bingo Londres txapelketa

TTIPI-TTAPA

Koteto Ezkurra, 23 urteko erremontelari doneztebarrak bigarren urtez segidan lortu du buruz-buruko erremonte txapelketa, finalean Jon Eizagirreri 35-31 irabazi ondotik.

Kotetok, hasiera batean adituek uste zutena baino lan gehiago egin behar izan zuen Bingo Londres II. txapelketa hau irabazteko eta modu horretan, pilotari ikusgarria izateaz gain, sufritzen ere badakiela erakutsi zuen.

Sakeak, banakako partiduetan ohikoa denez, arras garrantzitsua izan ziren partidu honetan ere. Hasierako tantuetan abantaila ttiki bat eskuratu zuen Ezkurrak, baina Eizagirrek hartu zuen aurrea sakeari esker. 10-6 irabaztetik 12-16 galtzera pasatu zen, Zarautzko atzelariak bortz tantu sakez egin zuen bitartean doneztebarrak bi falta egin baitzituen hasierako jokaldiarekin. Kotetok taktika aldatu zuen orduan eta gibeleko koadroetara joan zen errestatzera, emaitza ezin hobeagoarekin.

Azkenean, sufrituta izan bazen ere, erremontearen erregea dela erakutsi zuen berriro Doneztebeko gazteak. "*Banekien partidua zaila izanen zela, Eizagirre partidu gehiago jokatuta heldu baitzen.* " zioen partidua akitu bezain laister. Iaz baino zailagoa izan dela onartzen du. "*iaz ezustekoa eman nuen. Aurten, berriz, faboritoa nintzen*".

### Langarraren Eguna irailaren 14 eta 15ean ospatuko da Donamarian

Iaz Langarrak Sunbillan ospatu zuen bere eguna eta aurten Donamaria aukeratu du ekitaldi ezberdinak ospatzeko. Irailaren 14an, larunbatean, gauez Iparraldeko bi musika talde izanen dira. Igandean berriz, 11,30etan haur jokoak, 1etan aizkolariak eta 2etan bazkaria frontoian Jokin Sorozabal eta Angel Mª Peñagarikano bertsolariekin. Bazkarirako txartelak Malerrekako ostatuetan salgai daude 2.000 pezetatan. Arratsaldean, Zaldibiako Goizturi txarangak animatuko ditu bazterrak eta gorputzak.

### Irailaren 21ean antzerkia Legasan

Araitz-Beteluko *Xalastrajoak* antzerki taldeak bere saioa eskeiniko du Legasako plazan irailaren 21ean, larunbatean, arratsaldean. Lan honetan 10-12 lagunek parte hartuko dute. Ekitaldi hau Malerrekako Euskaltegiak (IKA) antolatu du aurtengo matrikulazio kanpaina dela eta.




TELLETXEA MOBLEAK

**Moble erakusketa haundia**

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

## GOIZUETA

# Marrazki bizidunak egiteko prozesua ikusgai datorren astean

Irailaren 17tik 21era, 'Dantzarien lokalean' egonen da

ESTEBAN AROZENA

Erakusketa berezi bezain interesgarri bat ikusi, ukitu eta manipulatzeko aukera edukiko dute herritar guztiek hurrengo astearte-tik larunbata arte. "Espazio magikoa" izena darama eta marrazki bizidunak egiteko prozesua erakutsiko da bertan.

Baina marrazkiak egiteko prozesua erakusketaren zati bat besterik ez da. Honetaz gain, teknika ezberdinez egindako animazio filmeak ere proiektatuko dira leku berean, bisitariek lehenengo atalean ikusi eta ikasitakoa pantailan ezagut dezaten. Museoaren zerbitzua ere betetzen du erakusketa honek, animazio zinearen historian zehar ibilitako materiale eta teknika ugarien berri emango baita bertan.



**Antiguako txapelketaren finaletan hiru goizuetar izan arren ez zen txapelik ailegatu herrira**

Argazkia: Felix LOIARTE

Atalarik interesgarriena, seguraski, tailerrarena izango da. Hemen, langilego teknikoaren eta puntako teknologiaren laguntzarekin (ordenagailua, bideoa, kamarak...) animazioak egiteko aukera eskainiko zaie bisitariei. Eraberean, beraiek sortutako neurri laburreko filmeak ikusi ahal izango dituzte momentuan.

'Artea eta Kultura' kanpainaren barrenean Udalak antolatzen duen ekitaldi honek 200.000 pezetako aurrekontua du, eta azken orduko aldaketarik ez baldin bada, dantzariek ibiltzen duten lokalean (Plazako eskola) burutuko da.

### Antiguako pilota txapelketa

Aurreko urtetan bezalako suerterik ez dute izan aurten Goizuetako pilotariek Antiguako txapelketa ospetsuan. Hiruk finala jokatu zuten arren, ez zen txapelarik sartu herrian, Aimar Olaizolak Barriola leitzarrarekin batera 22-16 galdu baitzuen promesas mailan eta Juantxo eta Joxeanton Apezetxeak, 22-21 helduetan.

## ARESO

# Antonio Alustizaren Jai da Nafarroako artzai-txakurrik onena

JUANA Mª SAIZAR

Nafarroako Artzai Egunaren barruan Huarte Arakilen burututako Nafarroako artzai Txakur txapelketan Antonio Alustizaren txakurra suertatu da irabazle, orain dela hiru urte bezala. Jai hiru frogak gainditu zituen txakur bakarra izan zen hamaika partehartzaileen artean. Azken frogan –ardiak hesian sartzea– lau minutu aski izan zituen. Txakurra oso gaztea da eta lehenbiziko aldiz txapeldun suertatu da.

Ez zen izan ordea, egun horretan herriratu zen sari bakarra. Goizez beste sari batzuk banatzen dira eta Miguel Mari Belaunzaranek hiru lortu zituen: ardi mutur gorri larrien loterik onena berak aurkeztu zuen, baita ahari mutur gorri onena. Bere bi urteko ardi mutur gorri batek produkzioaren saria irabai zuen, 108 egunetan 187 litrorekin.



**Antonio Alustiza eta Jai txapeldunak**




ALTXATA ELKARTEA • BAZTANDARREN BILTZARRA • BEHINPIN TALDEA
DOIKE EUSKARA TALDEA • LANGARRA EUSKARA TALDEA
MALERREKAKO IKA • TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA • XORROXIN IRRATIA




# Goizueta

Goizuetan bada gizon bat
deitzen zaio "trabuko"
hitzak ederrak bihotza paltso
sekula ez zaio faltako
egin dituen dilijentziak
berari zaizkio damuko.

Ondo oroitu hadi
zer egin huan Elaman,
difuntu horrek izandu balu
ahaidekorikan Lesakan
orain baino lehen egongo hintzan
ni orain nagon atakan.

Nere andreak ekarri zuen
Aranaztikan dotea,
hobe zukean ikusi ez balu
Berdabioko atea,
orain ez zuen hark edukiko
dadukan pesadunbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen
zeren ez naizen bakarra
hazitzekoak hor uzten ditut
bi seme ta hiru alaba
jaun zerukoak adi dezala
hoien amaren negarra.

**(1966) Herri Kanta / Mikel Laboa**

# Iturengo arotza

Iturengo arotza, Erramun Joakin,
hasarre omen zaude zeren dugun jakin
santurik ez liteke fiatu zurekin:
San Kristobal urtuta Joariak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:
— Urtu behar dinagu, ekarran santu hori
— Gizona zertat zoaz? Bekatu da hori
— Ez zionagu erranen sekulan inori.

Iturengo garaile Ramuntxo Joakin
haserre omen zaude zeren dudan jakin
konfesa zaite ongi erretorarekin:
ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,
egoten ahal zarete hemendik aparte;
baldin arotz horiek jakiten badute
joarien egiteko urtuko zaituzte.

**(1969) Herri Kanta / Mikel Laboa**

# Urtsuako kanta

— Goitizazu burua,
ene arreba Juana.
— Ez dezaket goratu,
anai Bautista jauna.
— Izorra omen zara,
ene arreba Juana.
— Zertan ezagun nauzu,
ene anai jauna.

Zazpi errota berri
zortzi jauregi txuri;
Horien guziengatik
nik ez Urtsura nahi.
— Zaldi zelarekin,
zuretzat jarria da.
— Nik iten dudan haurra
zure besokoa izain da.

Urtsuan zazpi leiho,
zazpiak lerro lerro
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.

**(1966) Herri Kanta / Mikel Laboa**

# Baztan

Ez dakit garbi noiz
bainan, egun sentiarekin
izango zen
Baztango bazterrak
isilka
nere logelan hasi ziren
hasi ziren
sartzen eta sartzen
lekurik ezak, nunbait
esnatu ninduen...
segituan jautsi nintzen
nun nengoen
leihoa ireki nuen
eta emeki-emeki
Baztango lurrean
Baztan baitan
Baztan izan nintzen.

**(1974) Hitzak: J.A. Arze**
**Musika: Mikel Laboa**

**Kultur Zurkaitza** Mikel Laboarekin abiatzen da, gure eremuarekin lotura estuak dituen pertsonai honekin. Berak hautatutako kantak dituzue hemen agertzen direnak, urteetan, nolabait, beti buruan izan gaituela frogatzen duten kantuak.
Ez dira Elizondoko kantaldian kantatuko dituenak, preziski, nahiz eta hauetako bakarren bat, seguraski, kantatuko duen.



Iñaki SALVADOR



Eduardo SALVADOR

## **Denbora galduaren bila** (Doneztebe)






Jesus ARZE
Joseba URZELAI



Josetxo
SILGUERO



Carlos ITOIZ




Música: Mikel Laboa



Joseba TAPIA



Aitor
LANDETA

# Gaztetasuna eta zahartasuna

Ene izpirituan bazen zenbait pertsu
oraino den guzia ez zerait hustu.
Zertaz dutan solasa emazue kasu
Esplikatuko baitut ahal bezain justu.
Zahar bezain prestu
odola zaut hoztu
bihotza ere laztu,
gorputza beraztu.
Oraino gazte banintz banuke gostu!

Zahar-gazteen arteko hau da parabola:
zuzen esplikatzia hein bat gogor da
gaztea ez daiteke adin batez molda,
gorputza sendo eta azkar du odola;
Zahar ez da hola;
iragan denbora
etortzen gogora
eta ezin kontsola...
Nekez bihurtzen baita zahar arbola!

Egunak badoazi egunen ondotik
ez dira elgar iduri joaiten hargatik:
atzo iguzkiaren distira zerutik,
egun hobela jalgi itsaso aldetik:
Euria ondotik
hasi da gogotik
hedoien barnetik
hortakoz badakit
Erituko naizela bustiz geroztik!

**Otxalde / Herrikoia / Mikel Laboa (1985)**

# Kantuz

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,
Kantuz igortzen ditut nik penak ihesi;
Kantuz izan dudano zerbeit irabazi,
Kantuz gostura ditut guziak iretsi;
Kantuz ez duta beraz hiltzea merezi?
Kantuz eman dut zonbeiten berriak,
Kantuz atseginekin erranez egiak;
Kantuz egin baititut usu afruntuiak,
Kantuz aithotzen ditut nere bekatuiak,
Kantuz eginen ditut nik penitentziak.

Kantuz ehortz nezate, hiltzen naizenian,
Kantuz ene lagunek harturik airian;
Kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian;
Kantu frango utziko diotet munduan,
Kantuz har diten beti nitaz orhoitzian.

**Jose Mendiage (1980)**

# Lore sortu orduko

Hogeigarren urtera ari naiz hurbiltzen...
eta nere oinetan tonba dut ikusten
ni zertako mundura etorria nintzen?
ondikoz ez sortzea neretzat hobe zen.
Sekulan zoriona zer den jakin gabe,
ainitz dut nik lurrean izan atsegabe
lore sortu orduko histu baten pare,
biziaren uztera guti naiz herabe.

Mendian ur txirripa, harrien artean,
auhen eta nigarrez jausten da bidean,
izan nahi baihuke zelai ederrean...
hala nere egunak badoaz lurrean.

**Harlouchi**
**Herrikoia**
**Mikel Laboa (1989)**



**Kantu hauek Arizkungo Xabier Larralderi ikasiak dira**



# Gure bazterrak

Maite ditut
maite
geure bazterrak
lanbroak
izkutatzen dizkidanean
zer izkutatzen duen
ez didanean ikusten
uzten
orduan hasten bainaiz
izkutukoa...
nere barruan bizten diren
bazter miresgarriak
ikusten

**Hitzak: J.A. Artze**
**Musika: Mikel Laboa**




## ERAKUSKETAK

Mikel Laboaren argazki, kartel, diska eta materialen erakusketa

| | | |
|---|---|---|
| **ARIZKUN** | Irailaren 7-8an | Elkartasuna elkartean |
| **ERRATZU** | Irailaren 14-15ean | Etxelebertzeko Txokoan |
| **ELIZONDO** | Irailaren 21-22an | Baztandarren Biltzarra |
| **DONEZTEBE** | Urriaren 11-12an | Casino-an |
| **ETXALAR** | Urriaren 19-20an | Eskola Zaharretan |
| **BERA** | Urriaren 26-27an | Gure Txokoa Elkartean |

Argitalpen hau, eskualdeko
Euskadiko Kutxaren
bulegoen
laguntzaz plazaratu da

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

## LEITZA

# Alkatea epaitegira deitua izan da Espainiako bandera ez jartzeagatik

Guardia Zibilak eta Baleztenatarrek egin dituzte salaketak

JOSEBA AZPIROZ



**Aritzko haize-errotak martxan**
Dagoeneko argindarra produzitzen hasiak dira Aritz mendian EHN enpresak jarritako 16 haize-errotak. Ederki aldatu da mendiaren itxura.

Mikel Illarregi alkatea, festetan Udaletxean jarrita zeuden banderei buruz deklaratzeko hilaren 10ean Iruñeako Epaitegian zitatu zuten Guardia Zibilak eginiko salaketa baten ondorioz.

Horretaz gain, Mª del Rosario Baleztenak Espainiako bandera ez jartzeagatik Udala salatu du. Festa egunean berak eta bere ahizpak gazte batzurekin izan zituzten istiluak ikusi eta parte ez hartzeagatik ere salatu du Udal Korporazioa. Galdetutako zinegotziek esan dutenez Udaletxetik jeitsi zirenean ez zuten istilurik sumatu, giroa baretua omen zegoen ordurako, (zanpantzarra plazan zebilen eta ondoren dantzariek ere beraien saioa hasi zuten) Silvia Baleztena (labana batekin) eta Silvestre Zubitur zinegotzia (balinezko eskopetarekin tiroka) Baleztenatarren etxeko balkoitik ikurriña bat igotzeko prestatuta zeuden globoak lehertzen hasi ziren arte. Bestalde, gertakizun horiek direla eta, alkateak heriotz mehatxuak jaso dituela salatu du eta zenbait karta anonimo ere ailegatu dira Udaletxera.

### Nafarroako Gobernuko dirulaguntzak

Nafarroako Emakumearen Institutuak 552.246 pezeta eman ditu ikastaroak antolatzeko. Lehendakaritza Departamenduak, berriz, 1.445.349 pezeta suhiltzaileen asegurua eta ibilgailuen asegurua eta mantenimendua ordaintzeko eta 2.972.541 pezeta suhiltzaileentzat materialea erosteko (arropak, talkiak, mangerak, etab...). Zerbitzu honetan hogei bolondres aritzen dira.

### Oinarrizko Gizarte Zerbitzu Mankomunitatea

Leitza-Goizueta-Areso-Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzu Mankomunitatea osatu zen irailaren 5ean Leitzan izandako bileran. Leitzako alkatea izanen da lehendakaria. Gizarte langile eta administrari laguntzaile postuak betetzeko deialdiak laister aterako dira.

## ttipi flash

**Orientazio ikastaroa**
Euskara Zerbitzuak orientazio ikastaro bat emanen du irailaren 14-15 eta 21-22an. Mendian mapa eta ipar-orratzarekin ibiltzen ikasteko izanen den ikastaro honetan parte hartzeko Udaletxean eman behar da izena, 1.500 pezeta ordainduz. Taldea gehienez 15 pertsonakoa izanen da. Larunbatetan teoria azaldu eta igandetan praktikak eginen dira.

**Auto eta moto Rallya**
Irailaren 21ean, larunbata, rally baten froga ospatuko da Leitza eta Ezkurreko gaina bitartean. Biharamonean, moto karrera izanen da arratsaldeko 4etatik aurrera.

**Turismorako dirulaguntza**
465.489 pezeta eman ditu Nafarroako Gobernuak Aitzinako Feriaren ospakizunerako.


GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

ttipi-ttapa
6.300 harpidedun
21.000 irakurle

SALDIASko zerrategia
Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak
Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305




BAZTAN

# Mikel Laboaren kontzertua irailaren 21ean Elizondon

## Kantariari buruzko erakusketa, bertzalde, herriz herri ibiliko da

JOSEBA IGARABIDE

Irailaren 21ean, arratseko 10etatik aitzinera kantaldia eskainiko du Mikel Laboak, Ruper Ordorikarekin batera, Elizondoko frontoian. Kantaldia Kultur Zurkaitzak antolatu du, Mikel Laboaren oroimenez eta gure eskualdearekin duen lotura indartu nahian. Izan ere, Mikel Laboak hainbat kantu eskaini ditu inguruko herriei, *'Baztan'*, *'Goizuetan'*, *'Iturengo Arotza'* edo *'Doneztebe'*, bertzeak bertze.

Kontzertua ez da, ordea, ekitaldi bakarra izanen, Mikel Laboaren diska-azal, argazki, kartel eta bertzelako materialen erakusketa zabalduko baita herri ezberdinetan. Irailaren 7 eta 8an Arizkungo Elkartasuna elkartean egon da, irailaren 14-15ean Erratzuko Etxelebertzeko Txokoan egonen da eta irailaren 21-22an Elizondoko Baztandarren Biltzarraren egoitzan.



### 'SAT Amaiur' gasnategiak irabazi du Nafarroako XV. Gasna Lehiaketa

Amaiurko gasnategiak irabazi du aurten Uharte-Arakilgo Artzai Egunaren barnean burutu den Nafarroako ardi gasna lehiaketaren lehen saria. Gasnategiaren izenean joan ziren Begoña Etxandi eta Lourdes Irigoienek ezustean jaso zuten saria, *«gasna bapatean aukeratu genuelako»*. Gasna erdiagatik 225.000 pezeta ordaindu zuen Madrilgo jatetxe batek. Arg.: Egin

### Amaiurko arkua konpontzen

Irailaren 2an hasi dira Amaiurko arkua konpontzen. Duela hilabete batzuk kamioi batek bota egin zuen eta eskala mantenduz metro bat goratuko dute arkua.

### Uso ehizi postuen enkantea

Irailaren 13an Kinto Realeko bi uso ehizi postu enkantean atera ko dira. Irabazietatik Erroko udalak %70a eramanen du eta gainerakoa Baztangoak.

### Zikiro jate berexia Arizkunen

Arizkungo landa etxe bateko belagian, karpa batean, Madrilgo bikote batek zikiro jatea eman zuen, Bozateko San Miguel ermitan ezkondu ondotik.

## ttipi flash

**Kirol instalazioak hobetzeko dirulaguntza** eman du Nafarroako Gobernuko kirol eta Gazteria Institutuak. Lekaroz eta Giltxaurdiko futbol zelaiak, Arizkun, Erratzu, Amaiur eta Elizondoko frontoiak eta klubendako egoitza bat moldatzeko bortz milioi t'erdiko subentzioa eman dute Iruñetik.

**Xorroxin Irratian frekuentzia berriak** Baztan, Bertizarana eta Malerrekan FM 107,5 frekuentzian segitzen du, Bortziriak eta Gipuzkoako zenbait herrietan FM 107,2 eta Sunbillan bietan aditzen ahal da.

**Mugen berrikuspena** Joan den astean Behenafarroa eta Lapurdiko herriekin Baztanek dituen mugak berrikusi zituzten herriko eta Iparraldeko agintariek.


IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
UDAZKENEKO ARROPAK
eta KONPLEMENTOAK
*Aukera zabala galtza, jertsei, kamiseta, blusa, traje eta konjuntoetan*
*Zatoz ikustera, gustatuko zaizkizu!*

ttipi-ttapa
Gida 96
Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

Mª Dolores Miñana
TOPOGRAFOA
NEURKETA • PLANOAK
*Lur neurketak, Luberriak Plantazioak, etab...*
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

## BAZTAN

# Elbeteko Santakrutzak irailaren 12tik 16ra ospatuko dira

Herri bazkaria Karrikatxarren izanen da aurten ere

**Ortzeguna 12**
**6etan** altxaferua eta ezkil jotzeak bestei hasiera emanen diete. **8etan** Baztan zopak Francisco akordeolariarekin. **11etan** txopo goratzea. Ondoren Francisco akordeolariarekin kalejira.
**Ortzileria 13**
**Mezpera**
**9etan** argi soinuak. **11etan** IV. Kamarekin errekan barna behititzea (irteera Eroaren Putzutik). **2etan** zikiro jatea. **6etan** mus txapelketa. **10etan** mutildantzak. **Arratsaldez** eta **gauez** ASKA taldea.
**Launbeta 14**
**Gurutze Sainduaren Eguna**
**9etan** argi soinuak. **12etan** Meza Nagusia Gurutze Sainduaren omenez. Ondotik Iparagirreren eskolako akordeolariak arituko dira. **6etan** pailazoak: Popi eta Zarratrako. Baztango Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. **7etan** txokolatada. **10etan** mutildantzak. Arratsaldez dantzaldia eta gero gaupasa GAUBELA taldearekin.
**Igendia 15**
**9etan** argi soinuak. **12etan** Meza Nagusia. **6etan** aizkora apostua: Etxeberria-Telletxea, Loiarte-Jaunsaras. **10etan** mutildantzak. **Arratsaldez** eta **gauez** ASKA taldea.
**Astelehena 16**
**Herritarren Egune**
**9etan** argi soinuak. **2etan** herri bazkaria Karrikatxarren, Josetxo akordeolariarekin. Afariaren ondotik bestak akituko dira.



Joan den urtean Karrikatxarreko bazkalondoren ateratako erretratoa

### Zigako bestak umore ederrean joan dira

Urtero bezala, jana, edaria eta dantza ausarki izan zen. Honetaz gain, dantzariek eta Mª Cruz eta Irantzu dantza irakasleek omenaldia jaso zuten. Nesken pala txapelketan Ana Oteiza eta Mertxe Mendiburu suertatu ziren garaile. Mutilen artean, Juan Martin Saratea eta Miguel Mendiburu nagusitu ziren eta mus txapelketa Lorentxo Kerejeta eta Miguel Mendibururentzat izan zen.

Datorren urteko bestak antolatuko dituzten maiordomoak Bixente Lakosta, Juan Ibarra, Mattin Barberena eta Pablo Mendiburu izanen dira.

**Hiru urtetik goitiko ehun dantzari baino gehiagok parte hartu zuen Guraso Elkarteak eta Aranabia elkarteak antolatutako Iruritako III. Dantzari Egunean. Ikusleak ere aunitz izan ziren eta batek baino gehiagok bestetan baino giro hobea zegoela erran zuen. Goizeko kalejira eta mezaren ondotik dantzariek erakustaldia egin zuten plazan eta gero 150 lagun inguru bildu ziren Trinketeko zikiro jatean.**



Argazkia: ONDIKOL


BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ 58 02 78

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 580313
ELIZONDO

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago, 56 • ELIZONDO
✆ 45 32 66 (etxekoa) ✆ 45 24 73 (bodega)

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK
Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

# ZUGARRAMURDI

# Irailaren lehen eguneko errefetarekin akabatu ziren aurtengo festak

## Berrehun bat lagun izan ziren herritarrendako zikiro-jatean

MARGARI ETA KORO

Irailaren 1ean "refeta" egunarekin agurra eman zitzaien aurtengo bestei. Gan den urtean bezalaxe, jende kopuru haundia izan da zikirojatean (200 bat lagun) eta giroa arras alaia jendearen artean. Nahikoa da erratea soka-dantzan igan zirela herrira gehienak, Malastatik eskoletarainoko soka luze bat eginez. Kontutan hartu behar da gainera, aunitz izan zirela ia bezperatik besta hasia zutenak Maite eta Mitxelen ezkontzarekin. Ilunabarrean plazan Gozategitarrek paratu zuten martxarekin giroa pil-pilean gelditu zen eta bukatzeko "Urrats" taldeak ez zuen arazorik izan egun osoko animazioa mantentzeko.



**Errefetetan, bestetan bezalaxe, giro ezin hobea izan zen**

### Kontzertu bitxia

Abuztuaren 5 eta 12an Elizondoko elizan kontzertu bitxi bat aditzeko aukera izan zen. Pablo Sarasate orkestako lau kidek "Phantasy Quartet" taldea osatuz David Johnstone ingelesak konposatutako *Las brujas de Zugarramurdi* musika lana estreinatu zuten. Konpositorea Zugarramurdiko lezeetan egon zen eta han ikusitakoarekin liluratuta gelditu ondotik musika hau konposatu zuen nolazpaite omenaldi bat egin nahian. Ea noiz dugun gure herrian musika hau aditzeko aukera.

# URDAZUBI

# Euri eta lainopean joan zaigu uda

## Euriak kalteak sortu ditu zenbait lekutan

SILVIA OLAIZOLA

Uda finitzen ari da eta denboraren aldetik ez du batere lagundu, euri eta lainopean pasatu baita. Uztailaren 27an bota zuen euri zaparrada gehienentzat kaltegarria izan zen, herriko La Koxka jatetxea urak hartu zuen eta Dantxarineako Bentetan ere gaizki ibili ziren. Laborariak kexu dira, belar idortze lanak zailak izan direlakoz eta gehienak ziloetan egin behar izan dituztelakoz. Halere, aurten belar aunitz bildu da.

Bisitariak beranduxeago etorri dira. Uztaila lasaia izan da eta abuztua, berriz, mugimendu gehiagorekin.

### Bi ezkontza

Bertzalde, herriko bi neska ezkondu dira uda huntan. Abuztuaren 3an Alizia Olaizola Orabideko Juan Mari Mendibururekin ezkondu zen. Bezperako gauean suartifizialekin oroitarazi gintuzten. Irailaren 7an Amaia Aiuso Madrilgo Luis de Juanekin esposatu zen. Bi ezkontzetan animazio ederra izan zen. Hunekin, aurtengo laugarren ezkontza da. Zorionak bi bikoteei eta luze iraun dezatela.

**Alizia ezkon-bidaian dagoela eta hilabete huntan Silviak emanen ditu berriak.**



**Juan Mari eta Alizia abuztuaren 3an ezkondu ziren Salbatore Donearen elizan**

## SARA

# Euskal Herriko II. Goitibera txapelketa burutu zen Santignazeko lepotik beheti

### Miguel Indurain Berako bizikleta ibilaldian saratarrak gailendu

MIXEL ETA JACQUELINE

Agorrilaren 31n burutu zen Saran Euskal Herriko goitibera txapelketaren bigarren edizioa. Errepide bazterrean jende aunitz bildu zen ikuskizun eder hau bistatzeko. Parte hartzea ere ez zen nolanahikoa izan, guztira 37 tramankulu atera baitziren Santignazeko lepotik beheti, eta horietako gehienak, aski ikusgarriak ziren.

Inguru honetako jendearen partehartzea zabala izan zen, Sarakoak, Senperekoak, Berakoak –laugarrenak izan ziren sailkapenean–, Azkaineko aunitz...

Azkenean, Lasarte eta Añorgako Soroa aita-semeak suertatu ziren txapeldun.



### Kontrabandisten Laisterketa joan zauku udarekin batera

Kontrabandisten Laisterketak errekista haundia ukan zuen iragan agorrilaren 25ean. Bigarren aldikotz Angel Mª Azpiolea irundarra atera zen irabazle 41' 25"ko denbora lortuz, ondotik Berako Pikabea anaiak (Patxi eta Iñaki) zituelarik. Hauek irabazi zuten taldeka. Lasterketa huntan sei herritar agertu ziren eta hauetarik hoberena argazkian ageri den Xano Mundutegi izan zen, sailkapen orokorrean bortzgarren izanez 43' 49"ko denborarekin.

### Miguel Indurain Bizikleta ibilaldiaren berri

Agorrilaren 11n Beran burutu zen txirrindula lasterketan bi saratar atera ziren irabazle. Bortzgarren aldikotz egin den lasterketa hunek Indurain izena dauka eta bi ibilbide zeuzkan.

Lehena 174 kilometrokoa zen eta bigarrena 106koa. Azkeneko huntan zuten saratarrek beren balentria egin. Felipe Azpiroz lehen ailegatu zen 550 txirrindularien artetik eta Kattinbordako Ramuntxo Lamothe 18 eta 24 urte arteko sailean hoberena izan zen. Gainera, sarien emaiteko Miguel Indurain bera hor zegoen eta bere eskutik hartu ahal izan zuten.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

FOTO MENA
ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU
IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ
KALE NAGUSIA 4 - TEL ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
Zaldubia Poligonoa • ✆ 580562
IRURITA - BAZTAN
Sukalde eta Bainu Mobleak
Egoki-ren banatzaile baimendua
EGOKI

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

ERTZILLA
ALBAITARITZA
KONTSULTA
Txakur eta katuendako
ORDUTEGIA
10etatik 1etara eta 4etatik 8etara
Larunbatetan 10etatik 1etara
Santiago 30, ✆ 580627
Larrialdiak: ✆ 580762
ELIZONDO

## EZKONTZAK

**Jose Biela Urtasun** eta **Itziar Mena Barberena**, Elizondokoak, uztailaren 20an.
**Francisco Javier Jabalera Ubric** eta **Ana Isabel Juanena Mindegia**, Bera eta Doneztebekoa, uztailaren 27an.
**Francisco Javier Telletxea Perugorria** eta **Pilar Galarregi Argarate**, Bera eta Elizondokoa, abuztuaren 10ean.
**Francisco Miguel Subizar Garralda** eta **Alicia Trantxe Garcia**, Legasa eta Elizondokoa, abuztuaren 17an.
**Angel Mª Gil Mikelarena** eta **Mª Jose Goienetxe Burkaizea**, Lesaka eta Elizondokoa, abuztuaren 24an.
**Agustin Zugarramurdi Ballarena** eta **Clara Santxotena Otondo**, Arizkun eta Erratzukoa, abuztuaren 24an.
**Sebastian Mindegia Belarra** eta **Ana Mª Benito Ostolaza**, Eratsun eta Iturengoa, abuztuaren 3an.
**Salvador Arozena Lazkano** eta **Izaskun Jorajuria Martinez**, Doneztebekoak, abuztuaren 31n.
**Juan Mª Mendiburu Iturbide** eta **Alizia Olaizola Zaldainena**, Azpilkueta eta Urdazubikoa, abuztuaren 3an.
**Luis de Juan Chocano** eta **Amaia Aiuso Aparicio**, Madril eta Urdazubikoa, irailaren 7an.
**Bertrand Pique** eta **Marie Errandonea**, Paris eta Sarakoa, abuztuaren 12an.
**Henri Lasaga** eta **Beatrice Tapia**, Urruña eta Sarakoa, abuztuaren 24an.
**Maite Mendiburu** eta **Mitxel Begino**, Zugarramurdi eta Igantzikoa, abuztuaren 31n.
**Juan Bautista Pikabea Altzuguren** eta **Juana Madariaga Almandoz**, Lesakakoak, uztailaren 20an.
**Inaxio Etxepare Arretxea** eta **Irene Elrio Iñarga**, Lesaka eta Berakoa, abuztuaren 3an.
**Angel Oiartzabal Larraburu** eta **Miren Jasone Zoco Susperregi**, Doneztebe eta Lesakakoa, abuztuaren 31n.
**Bixente Lekuona Galardi** eta **Eukene Oiartzabal Maritxalar**, Irun eta Lesakakoa, abuztuaren 31n.

## JAIOTZAK

**Sara Maritxalar Salaberri**, Igantzikoa, abuztuaren 5ean.
**Mikel Agerre Iparragirre**, Igantzikoa, abuztuaren 9an.
**Janire Loinaz Etxeberria**, Igantzikoa, abuztuaren 12an.
**Marco Hernandorena Alcaraz**, Leitzakoa, uztailaren 21ean.
**Iker Sagastibeltza Perurena**, Leitzakoa, abuztuaren 18an.
**Rafael Goikoetxea Andrade**, Leitzakoa, abuztuaren 31n.
**Patxi Sarratea Sanzberro**, Almandozkoa, uztailaren 23an.
**Santiago Garmendia Muñoz**, Elizondokoa, uztailaren 25ean.
**Maite Elizetxe Ruiz**, Elizondokoa, abuztuaren 20an.
**Julia Nieto Elizalde**, Elizondokoa, abuztuaren 23an.
**Ander Berho Migelena**, Oronozkoa, abuztuaren 27an.
**Xabier Narbarte Oiartzabal**, Goizuetakoa, uztailaren 28an.
**Iban Juanena Ezkurra**, Doneztebekoa, abuztuaren 10ean.
**Guillaume Marty**, Sarakoa, abuztuaren 14an.
**Josu Tapia**, Sarakoa, abuztuaren 6an.
**Oihana Oronoz**, Sarakoa, uztailaren 26an.
**Claire Yuernault**, Sarakoa, uztailaren 8an.
**Joana Ariztegi Karrikaburu**, Igantzikoa, abuztuaren 20an.
**Ainhoa Etxebeste Azkarate**, Lesakakoa, uztailaren 18an.
**Ibon Txoperena Elosegi**, Lesakakoa, abuztuaren 1ean.
**Alazne Goia Muñoa**, Lesakakoa, uztailaren 30ean.
**Anne Lanz Aiertza**, Lesakakoa, abuztuaren 16an.
**Andrea Uxua Escagues Martiarena**, Berakoa, uztailaren 20an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.
IRUÑEKO KUTXA

## HERIOTZAK

**Angel Gaztelumendi Zabaleta**, Elizondon, irailaren 1ean, 61 urte.
**Gil Zubillaga Billabona**, Leitzakoa, abuztuaren 25ean, 80 urte.
**Fermin Fidel Inziarte Ariztegi**, Elizondon, uztailaren 26an, 84 urte.
**Juana Jauregi Mendiondo**, Elizondon, uztailaren 28an, 83 urte.
**Juana Añoveros Ataun**, Elizondon, uztailaren 30ean, 89 urte.
**Isabel Santxotena Irisarri**, Elizondon, abuztuaren 9an, 90 urte.
**Irene Maritorena Berekotxea**, Arizkungoa, abuztuaren 21ean, 84 urte.
**Juan Bautista Loiarte Zubieta**, Goizuetakoa, abuztuaren 6an, 85 urte.
**Josefine Larraboure**, Sarakoa, uztailaren 25ean, 98 urte.
**Joakin Nesprias**, Sarakoa, buruilaren 2an, 84 urte.
**Modesto Dominguez Zabaleta**, Berakoa, abuztuaren 25ean, 71 urte.
**Martin Antonio Saragueta Almandoz**, Berakoa, abuztuaren 25ean, 58 urte.
**Maddi Perugorria**, Sarakoa, irailaren 3an, 86 urte.
**Bernardo Etxeberria Inda**, Etxalarkoa, abuztuaren 13an, 73 urte.
**Andres Galarregi Ozkariz**, Etxalarkoa, buruilaren 2an, 82 urte.

BAZTAN
FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

GASKAITZ
fontanería
calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN



**Lehen bi edizioetako txapeldunak izan diren Mundiñano anaiak Altsasuko finalean izanen dira aurten ere** Argazkia: Egin

# *Eskualdeko ordezkari ugari izanen dira Nafarroako trikitilari txapelketaren finalean*

Irailaren 15ean, eguerdiko 12,30etatik aitzinera Altsasuko Herriko Plazan burutuko den Nafarroako trikitilarien III. txapelketako finalean eskualdeko ordezkaritza zabala izanen da. Zehazki errateko, zortzi bikoteetatik bortz eskualdekoak izanen dira eta gainerako hiruak Sakana aldekoak, Goizueta eta Lakuntzan egindako finalerdietan jasotako puntuazioaren arabera.

Zortzi bikoteak 12etarako plazan egon beharko dute, lanari ekiteko prest. Piezak ohikoak izanen dira, hau da, Trikitixa, Porrusalda, Fandangoa eta Arin-arina.

Antolatzaileek adierazi dutenez, epaimahaikoaren erabakia alda ezina izanen da, parte hartzaileak baserritar jantziaz etorri beharko dute eta puntuazioa, ohikoa den bezala, arbelean jarriko dira, bai parte hartzaileek baita ikusentzuleek ere begien bistan izan dezaten.

Antolatzaile lanetan ari den Martxel Ansak adierazitakoaren arabera, *«bai Goizuetan baita Lakuntzan ere giro polita izan da. Altsasuko finalean berdin gertatzea espero dugu»*.

**FINALEAN ARITUKO DIRENAK**

| | | |
|---|---|---|
| Mikel eta Iñaki Mundiñano | Etxarri | 205'75 |
| Ione Elgorriaga eta Izaro Ansa | Lesaka-Arano | 204'75 |
| Dani eta Ainara Narbarte | Goizueta | 203 |
| Irune Agirre eta Onditz Artieda | Arbizu-Etxarri | 202'5 |
| Amaia eta Joseba Irastorza | Bera | 201'75 |
| Irune eta Patxi Zabala | Goizueta | 199'25 |
| Oihana Almandoz-JoseMª Elgorriaga | Lesaka | 198 |
| Iñaki Mendinueta eta Onditz Artieda | Arbizu-Etxarri | 197'5 |

# *Amaia Mengo neskattoaren oroimenean*

*Urak* eraman du Amaia
aunitz lagunekin batera eraman zaitu mugaz bertze alderat
mugarik ezagutzen ez duen herrialderat.
Zergaitik
bizitzaren ekarlea estimatzen duguna... Ura...
***AMAIA***
antzerkilaria izan zen antzerkilari gaztetxuen artean:
"Aladinoren ama behin batean...
Zebra Txikiari Euriaren Erreginaren Erresumarat ura eske
joateko bidea erakutsi zion Suge Xarmanta bertze behin batean...
Izarrei izenak asmatzen zizkion Poeta azken aldi batean..."
Bat, bi, hiru bider taulen gainetik amets munduan sarteraziz ikusleak
mezu garbiez jositako istorio liluragarriak...
adin txikiaren kontalari handia.
*Gorde* ahal dugu gure arimetan amets ipuinak bizierazteko zuen gaitasuna
zeruan zehar orain hegan dabilen **Uso Zuriak:**
gora begira beraren hegalek hegalduko gaituzte
beraren irrifarrak kontsolatuko.
*Konprenigarria* ez den gainetik begiratzen saia
Hendaia, Urruña, Berako... eta munduko lagun antzerkilariok,
gazte eta helduak garen guztiok.
Justizia guztiarekin Madarika dezaguz ezbeharra:
haurrek ez lukete hil behar!
haur bat hiltzean etozkizunaren zatitxo bat hiltzen baita.
eta ezbeharraren injustizia Madarika eta gero
utz dezaiogun **Uso Zuriari** hegalada librea eta pentsa
betirako pentsa dezagun naturarekin bat izateko sortuak garela
gizakiok arrokeriak edo-ta probetxotasun-minak
ez ditzaten inungo modutan arima inozenteek paga.
*Betirako baitu gure zeru zabalerat hegalada altxatu*
*mezu handi horren eramaileak:* ***Amaia, Gure Usoa.***



«Zubigarai», Hendaia eta Berako haur antzerkilarien izenean ere

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**
BERA
DESINFECCIONES
© 63 01 55
BERA

# Nafarroako txapel nagusiaren bila joanen diren bortz aizkolariak ezagun dira

## Floren Nazabal, Mikel Mindegia, Donato Larretxea, Antonio Senosiain eta Patxi Etxeberriaren artean jokatuko dute urriaren 13ko finala Donezteben

Abuztuaren 25ean Lakuntzan burututako kanporaketaren ondoren ezagunak dira aurtengo Nafarroako aizkolarien txapelketa nagusiaren finalean ariko diren bortz aizkolarien izenak: Floren Nazabal, Mikel Mindegia, Donato Larretxea, Antonio Senosiain eta Felix Etxeberria.

Boskote hau arituko da urriaren 13an Donezteben jokatuko den finalean eta Martin Jauntsaras almandoztarra izan da bigarren mailara jautsi dena, Lakuntzan azkena izan ondotik.



Mikel Mindegia, Nazabal, Etxeberria eta Larretxea Doneztebeko finalean izanen dira. Patxi Mindegiak ez zuen kanporaketan parte hartzerik izan

**BEDERATZI AIZKOLARI LEHIAN**

Kanporaketan 9 aizkolari aritu ziren, Patxi Mindegia lesionatua baitzegoen, bakoitzak bi kanaerdiko, 60 ontzako bertze bi enbor eta oinbiko bana moztu behar zituelarik. Hiru txandatan banatu ziren partehartzaileak: lehenengoan Jose Antonio Loiarte, Martin Jauntsaras eta Jose Juan Barberenak hartu zuten parte. Barberena izan zen azkarrena 15'01" denbora eginez, ondotik Loiarte, 16'35", eta Jaunsaras, 19'11". Bigarren txandan Felix Etxeberria, Antonio Senosiain eta Antonio Jaunarena aritu ziren. Txanda honetako azkarrena Olagueko aizkolaria izan zen 13'26" denborarekin. Etxeberria sunbildarra izan zen bigarrena, 14'09" eta Zubietako Jaunarena hirugarrena, 14'35". Aipatzekoa da Jaunarenak izan zuen zoritxarra, egurra orokorrean ona bazen ere, berari hiru adar atera baitzitzaizkion.

Hirugarren txandan faboritoak aritu ziren. Nazabal eta Mikel Mindegiaren arteko lehia bizia izan zen, azkenean Etxarri Aranazkoak segundu bakarreko aldea atera zuelarik (12'07" Nazabalek, 12'08" Mindegiak). Arantzako Larretxeak 13'06" behar izan zituen bere lana akitzeko.

## *Angel Azpiolea irundarra nagusitu zen Sarako Kontrabandisten Laisterketan*

Angel Azpiolea irundarrak irabazi zuen, joan den urtean bezala, abuztuaren 25ean Saran burutu zen Kontrabandisten laisterketaren XXXIV. edizioa. Garaileak 41'46" behar izan zituen bederatzi kilometro inguruko ibilbidea egiteko. 42 urte dituen korrikalariak aisa utzi zituen gazteak gibelean.

Itzala egin zion bakarra Patxi Pikabea beratarra izan zen, 14 segundutara helmugaratu baitzen eta hirugarrena Iñaki Pikabea anaia izan zen, honenbertzez taldekako garaipena Berara eramanez.

Guztira 36 laisterkalari abiatu ziren, mugaz bi aldeetako 18 herri ordezkatuz. Zenbait herritan bi lagun aurkezterik izan ez zutenez, bertze herrietako 'fitxajeak' egin behar izan zituzten. Honela, parte hartu zuen emakume bakarra, Maika Ariztegi iturendarra, Elizondoren izenean aritu zen eta



Eskualdeko korrikalari aunitzek parte hartu zuten Kontrabandisten laisterketan. Maika Ariztegi iturendarra izan zen emakume bakarra.

Argazkia: LEGARRA

Berako bortz eta Irungo hiru atletak parte hartu zuten 1961 urteaz geroztik egiten den proba honetan.

# Nafarroako eskualde arteko bigarren igeriketa txapelketaren finalak burutu dira

## Bi domina bertzerik ez dute eskuratu aurtengoan Sesman Baztan-Malerreka-Bortziriak-Leitzaldeko igerilariek

Abuztuaren 24an burutu zen Sesman Nafarroako eskualde arteko igeriketa txapelketaren bigarren edizioko finalak. Baztan, Leitzaldea, Bortziriak eta Malerrekaren izenean aritu ziren igerilariek eginahalak egin bazituzten ere ezin izan zuten azken urteetako emaitza onak errepikatu eta bi domina bertzerik ez zituzten eskuratu.

Alebin mailan, 25 metro estilo librean, urrezko domina irabazi zuen Lorea Sarobe beratarrak. Infantil mailan berriz, 50 metro bizkarka, zilarrezko domina leporatu zuen Lorea Arburua elizondoarrak.



**Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Leitzaldeko taldeko igerilariak, Sesman jokatutako eskualde arteko igeriketa txapelketaren finalean**

### VI. Gure Txokoa txapelketa

Abuztuaren 31n, aurtengo igeriketa txapelketei akabera eman dien Gure Txokoa igeriketa txapelketaren seigarren edizioa burutu da Beran. Alebin mailatik hasi eta jubenilak bitarteko 60 igerilari aritu ziren. **Alebinetan**, Asier Arretxea, Udane Cabezas (2 proba), Ion Apeztegia, Lorea Sarobe (3) eta Ander Rodriguez (2) nagusitu ziren era ezberdinetan. **Infantiletan**, Ibai Elizalde, Lorea Arburua (3), Aimar Fernandez, Elena Barteró, Santi Uterga (2), Diego Errandonea eta Karmele Gomez. **Kadetetan**, Beñat Saralegi, Nahia Senper (3), Txomin Elgorriaga (2), Jasone Iriarte, Iraitz Aizagirre (2) eta Isabel Barberena. **Jubeniletan** azkenik, Saioa Ataunek irabazi zuen nesken bortz probak eta mutiletan, J.Angel Perotxena, L.Miguel Garcia eta Ruben Castrok (3) irabazi zuten.

## *Igantziko VI. Mendi Bizikleta Ibilaldia igande honetan burutuko da*

Irailaren 15ean, goizeko 10,30etatik aitzinera burutuko da Iruglass-Biltoki mendi bizikleta taldeak antolatutako Igantziko mendi bizikleta ibilaldiaren seigarren edizioa. Izen ematea proba hasi baino ordu erdi lehenago itxiko da eta 500 pezeta ordaindu beharko ditu partehartzaile bakoitzak.

Ibilbideak 24 kilometro izanen ditu. Joan den urteko zirkuitoa luzatu egin da eta bi itzuli eman beharko zaizkio 12 kilometroko zirkuito berriari. Proba akautzerakoan hameketakoa banatuko da eta bizikleta tresnak zozketatuko dira.



**Joan den urtean 125 txirrindularik parte hartu zuen Igantziko mendi bizikleta ibilaldian. Aurtengoan zirkuito luzeagoa izanen dute, txirrindulari batzuk doblatuak izan ez daitezen**

Argazkia: Oskar TXOPERENA

## BOTE pronton

### Antiguako pilota txapelketa

Almandoz lesakarrak, Berraondo lagun zuela, irabazi zuen Antiguako pilota txapelketa, finalean Joxeanton eta Juantxo Apezetxeari 22-21 irabazi ondotik. Joxeanton Apezetxeak eskuratu zuen pilotari onenari emandako saria. Promesas mailan azpitxapeldunak izan ziren Olaizola goizuetarra eta Barriola leitzarra.

### Nafarroako Herriz Herri txapelketa

Lehen mailan eta hiru jardunaldiren ondotik, honela dago sailkapen orokorra: 1. konbinadan Etxauri Harana 11 puntu, Ultzama 9, Arraiotz 6 eta Araitz 4 puntu. 2. konbinadan (Hiru kirol), Arraiotz 11 puntu, Etxauri Harana 9, Ultzama 7 eta Araitz 3 puntu.

### Jon Irazoki II. Memoriala

Abuztuaren 31n Berako Matzada futbol zelaian jokatu zen Jon Irazoki zenaren omenezko norgehiagoka, Irungo Real Union B, Oiartzun eta gure Txokoaren artean. Irundarrak suertatu ziren txapeldun, bi partiduak irabazita, Oiartzun bigarren eta Gure Txokoa hirugarren. Saria, Jose Mª Irazoki, Jon zenaren aitak eman zion Real Union taldeko kapitainari.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

**ELBETE**

**▸ Irailaren 12tik 16ra** Xehetasunak 23. orrialdean.

**ILLEKUETA (BERA)**

**▸ Irailaren 14 eta 15ean** Santakruzak. Larunbat eguerdian botako da altxaferua. Arratsaldez, 4,30etan Matzadako Tiro Txapelketa eta segidan haurrentzat jokoak eta dantzariak. 8etan herri kirolak eta 10ak aldera suzko zezena. Dantzaldia Amalur orkestak eskainiko du.



Igandean goizeko 11etan Meza Nagusia. Eguerdiko 2etan Auzo Bazkaria eginen dute urtero bezala. Arratsaldeko 7etan Cristina Unsionen ikasle kordionistak ibiliko dira karrikan eta 8etan dantzaldia Ramontxorekin.



## OSPAKIZUNAK

**JOALDUNEN EGUNA**

**▸ Irailaren 21ean** Iturenen. Goizetik iluntzera joaldunak, aizkora apostuak, bertsolariak eta dantzaldia izanen dira.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### *Sagar tarta*

**Osagaiak**

*• 3 arraultze • 150 gr. irin • 150 gr. azukre • 100 gr. gurin • 2 goilarakada esne • legamia sobretxo bat • 7-8 errege sagar.*

**Prestatzeko modua**

Arraultzeak irabiatu eta segidan, irina, azukrea, gurin urtua, esnea eta legamia erantsi. Ongi nahasi.

6 errege sagar zuritu eta puskatan zatitu. Ontzi batean ura eta azukre pixka bat jarri sutan. Ur horretan sagar puskak egosten jarri eta bigundu direnean ateri, lehen egindako nahaskiari erantsi.

Sagar tartak egiteko moldea gurineztatu, eta egin berri dugun masa, hortxe botako dugu. Geratzen zaizkigun sagarrak zuritu eta xerra finetan moztu ondotik, tartaren gainean jarriko ditugu modu apainean. Sartu labean 40 minituz 180ºtan. Egina dagoenean, gustoko dugun marmeladaz pintatuko dugu gainetik. On egin!



Rakel ETXARTE

IGANTZI Jatetxekoa •IGANTZI•

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.500 - 6.600 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 234pzta/kilo
- **Zerramak:** 130-140 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 500 |
| 1.koa | 480 |
| 2.koa | 460 |

- **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 510 |
| 1.koa | 490 |
| 2.koa | 470 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 24.000 Pzta.

**Mestizoak:** urruxak 24.000 eta idixkoak 33.000 Pzta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 330 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: **EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...**



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoa** 950.
- **Udareondoa** 950 pzta.
- **Gereziondoa** 1.050 pzta.
- **Aranondoa** 1.050 pzta.
- **Muxika** 880 pzta.
- **Urritza** 880 pzta



### ❖ LANDAREAK ❖

- **Porruak** zientoa 400.
- **Tipulak** zientoa 800.


ETXANDI TXOKO erretegia

**Bazkari, afari eta gosariak**

**ITUREN**
**Tfnoa: 45 04 91**




JAKIN BEHARREKOAK

# *Elektrogailuak eta tximistak*

Tximistek, atmosferatik lurrera erortzen diren deskarga elektrikoek, ikaragarrizko tentsioa izaten dute. Atmosferan pilatuta dagoen elektrizitate estatikoa da azken finean, bi plastiko zati elkarri igurtzita sortu ahal dugunaren antzerakoa.
Lurrera erortzerakoan, biderik erraxena hautatzen dute normalean: burdintsuak diren lurrak, lur hezeak, tximistorratzak…
Tximista baten adar txikiak dira, kasu guzien % 90ean, gure etxeko elektrogailuetan sartzen direnak argindar-saretik.



**GARRANTZITSUA: Egoera txarrean dagoen tximistorratza, deus ez izatea baino kaltegarriagoa izaten ahal da.**

**AHOLKU BATZUK TXIMISTAK DAUDENERAKO**

1.–Automatikoa izanik ere, hozkailua, garbigailua edo bertze edozein elektrogailu beren entxufetik ateri.
2.– Telebista, bideo, musika-ekipo eta antzerakoak, entxufetik ateratzeaz gainera, komeni da antenatik ere deskonektatzea.
3.– Bizi garen ingurua tximistak erortzeko arrisku haundikoa bada, badira entxufe berezi batzuk larakoei (klabija) akoplatzeko, eta entxufea ateratzea ahaztu zaigun kasuetan, babes haundia ematen dutenak.
4.– Inoiz ez garenez egonen arras seguru, komeni da kasu hauetarako asegurua egitea.
5.– Kontutan hartu, automatikoa saltatzen denean aberia gertatu delako izaten dela, eta ez alderantziz.

**TXIMISTORRATZAK**

Haga baten puntan jartzen diren metalezko tramankuluak dira. Badaude klase desberdinetakoak, eta orohar, tximistak erakartzen dituzte modu kontrolatuan lurrera deskargateko.
Arras inportantea da sirgak tximistorratzarekin eta lurhartzearekin dituen loturak egoera onean egotea, sirgak ahalik eta biderik zuzenena izatea lurreko pikara ailegatzeko; bihurgunerik gabea, alegia
Normalean elizetan eta leku garaietan jartzen dira eta euren babes-hedadura dauden altueraren araberakoa izaten da

BORTZIRI ZERBITZU TEKNIKOAK ESKAINITAKO AHOLKUAK

BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA
CANAL+
Televés
GISA GUZIETAKO ANTENEN INSTALAZIOA:
• Kolektiboak
• Indibidualak
• Parabolikoen instalazioa 50.000 Ptatik. aitzinera.
Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### KANTALDIAK

**ELIZONDO**

**Irailaren 21ean** Elizondoko Pilota Lekuan eta gaueko 10etatik goiti, MIKEL LABOA eta RUPER ORDORIKA arituko dira. Ekitaldia Kultur Zurkaitza Elkarteak antolatua da.

### ERAKUSKETAK

**BERA**

**Irailaren 7tik 22ra** Euskal Herriko Akuarelistak izeneko erakusketa Gure Txokoa Elkartearen egoitzan.

**GOIZUETA**

**Irailaren 17tik 21era** 'Espazio Magikoa' izeneko erakusketan, marrazki bizidunak egiteko prozesua dantzarien lokalean.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Irailaren 9tik 15era** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), eta Goizueta.
**Irailaren 16tik 22ra** Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.
**Irailaren 23tik 29ra** Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

**HIGIEZINAK SALTZEKO**
101. Etxeak
102. Etxebizitzak
103. Baserriak
104. Txaletak
105. Apartamentuak
106. Merkataritza-lokalak
107. Garajeak
108. Lurrak/orubeak

**HIGIEZINAK EROSTEKO**
111. Etxeak
112. Etxebizitzak
113. Baserriak
114. Txaletak
115. Apartamentuak
116. Merkataritza-lokalak
117. Garajeak
118. Lurrak/orubeak

**ESKUALDATZEAK**
121. Merkataritza-lokalak
122. Bertzelakoak
131. Etxeak

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko 948-*
*Iparraldetik 19-34-48*

# 631188

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

**ERRENTAN HARTZEKO**
132. Etxebizitzak
133. Baserriak
134. Merkataritza-lokalak
135. Lurrak/orubeak
136. Bertzelakoak
141. Etxeak

**ERRENTAN EMATEKO**
142. Etxebizitzak
143. Baserriak
144. Merkataritza-lokalak
145. Lurrak/orubeak
146. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Osasun arlokoak
207. Mendi lanak
208. Gestoriak
209. Garraioak
210. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskaintzak
302. Eskariak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Saldu
502. Erosi
503. Tailerrak
504. Bertzelakoak

**ANIMALIAK**
601. Saldu
602. Erosi
603. Eman
604. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu/aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak
802. Deialdiak

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 101 ETXEAK

**BERA.** Bi solairu eta loretegia duen etxea salgai ☎ 631422.

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 102 ETXEBIZITZAK

**BERA.** Pisua salgai. ☎ 451841.

**BERA.** Pisua salgai Altzate karrikaren ondoan. ☎ 451841.

**LESAKA.** Pisua salgai Antoiu karikan. Hiru logela, sukalde bat, bainugela bat eta egongela bat. ☎ 637810.

**ETXALAR.** Pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, baunua eta trateroa. Denak kanpoaldera ematen du eta bizitzera sartzeko moduan. ☎ 635146.

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 108 LURRAK/ORUBEAK

**SUNBILLA.** Terreno bat salgai herritik 400 metrotara. ☎ 580228. Deitu eguerdi edo arratsetan, 9etatik goiti.

## HIGIEZINAK EROSTEKO

### 113 BASERRIAK

**BAZTAN.** Borda erosiko nuke partikularretik partikularrera. Inmobiliariarik ez. ☎ 176577 (Andres).

## ESKUALDATZEAK

### 121 MERKATARITZA-LOKALAK

**BERA.** Atenditu ezinean gabiltzanez, negozioa tranpasatu nahi dugu. Legia karrikan ☎ 631490.

## ERRENTAN EMATEKO

### 142 ETXEBIZITZAK

**DONOSTIA.** Egia auzoan ikasleentzat pisu bat errentan jarriko nuke. ☎ 943.291768 Pello. Eguerdiko 12eatik aitzinera.

**IRUÑEA.** Urdazubiko Monastegia izeneko karrikan ikasleentzat pisu bat errentan jarriko nuke. Hobe neskak. ☎ 630577.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK


**ARANTZA ZVRGINDEGIA**
*Jose Miguel Errandonea*
*Klase guztietako zurgin lanak*
Osiña auzoa ✆ 948-387017 • ARANTZA



**Juanjo ERRO**
Zurgin lanak orokorrean
Moble zaharrak konpontzen ditugu
Alan-zahar • LESAKA
✆ 948-637862


## LANA

### 301 ESKAINTZAK

**Neska batek** etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke ☎ 637749. Gauez.

**Emakume batek** ordu batzuz lan eginen luke etxekolanetan edo haurrak zaintzen, Lesaka inguruan. ☎ 637363 (Mª Carmen, ilunabarretan).

**Neska euskaldunak** etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke ☎ 637492. Amaia.

**Kartelak,** buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188. Bulego orduetan.


**ttipi-ttapa**
**Gida Komertziala 96**

Elektrizista baten bila zabiltza? Gida honetan topatuko dituzu inguruko guztien telefonoak.


## IRAKASKUNTZA

### 402 AKADEMIAK


Angie
ENGLISH ACADEMY
Elizagibela, 7 Behea • ✆ 45 01 02
DONEZTEBE
**Ingelesa ikasteko modurik errax eta atseginena**
*Irakasle amerikarra, multimedia-ordenagailuak, bidoteka, etabar.*
96-97 ikasturterako matrikula zabalik



**ARIN**
ZERBITZUAK
**Zure autoa aseguratu nahi duzu? Edo zure etxea? Erretiroak kezkatzen zaitu? Saldu nahi dizuten asegurua eta zuk dituzun beharrak bat datoz?**
**Behar baino gehiago ari zara ordaintzen?**
*Galdera hauei erantzuteko zatoz profesionalen eskuetara*
Parrokia karrika, 21 • Tfnoa.: 948 - 45 02 66 • **DONEZTEBE**

**MENDAUR MOTOR**
✆ 450 333 • DONEZTEBE

**FINANTZIAZIO ERREZTASUNAK berriak ez diren ibilgailuentzat ere**

**BIGARREN ESKUKO AUTOAK**
Renault 19 Diesela, 10 hilabetekoa, 20.000km.
**Aukerakoa.**
Suzukiak eta Land Rover-ak. Modelo bat baino gehiago.
Renault Super 5



**OFERTAK Opel eta Suzuki berrietan**

## MOTORRA

### 501 SALDU

**BOB-CAT** makina salgai, retroa, zulagailu hidraulikoa eta pala dituena. Ia-ia berria dago. ☎ 580109. Deitu bulego orduetan.

**SAMPI ARAGON**
Mitsubitsi Laburra, Suzuki SJ-410, Citroen Xantia, Ford Escort 1.4 S atekoa, Ibiza 1.2 S atekoa, Corsa diesela, Fiat Uno, Panda, Horizon
✆ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Renault 11 Diesela** salgai. NA-P. ☎ 631018.

**Peugeot 306** turbo-diesela, NA-AP matrikuladuna, salgai. ☎ 510558.

**Rieju MR80** motoa salgai, egoera onean. ☎ 635196.

**Gilera Dakota 500** motoa salgai, Trailekoa. 13.000 km. Arras ongi dago. ☎ 634185. Gauez deitu.

**BOAN TAILERRA**
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • **BERA**

**Vespa** NA-W salgai. 200 cc. eta beix kolorekoa. ☎ 631193. Gauetan.

**Pegaso Iveco** kamioneta salgai. NA-AF. Animali garraiorako prestatua. 4 urte, 65.000 km. 2.850.000 negoziagarriak ☎ 451518-234830.

**Renault Clio**, NA-AC matrikuladuna salgai. ☎ 510558.

## ANIMALIAK

### 601 SALDU

**Txakur Pekinesak** salgai. ☎ 631218 Pili. Arratsetan deitu.

**Ahari mutur gorria** eta adarrik gabea salgai. ☎ 397039.Leitza.

**Sei hilabeteko** ardi-zakur arra salgai. ☎ 514168.

**Basurde ehizirako** 5 zakur salgai. ☎ 393099.

**Txakurkumea** salgai. Espainiar-Bretoi arrazakoa, pedigriduna. Oso ona ehizarako eta muestra egiten. ☎ 948.725574. Lan orduetan 948.301102.

**Zezen bat** 8 urtekoa, Pirinaikoa, mendian ongi ibiltzen dena, salgai Leitzan. ☎ 510303.

## ANIMALIAK

### 603 EMAN

**Bi hilabeteko** txakurkumeak oparituko nituzke. Ama arras artzain ona dute. ☎ 610689.

**Artzai zakurkumeak** oparituko nituzke. ☎ 630766.

**ADOS**
INMOBILIARIA AGENTZIA
*Julian Izura Nuin*

**BERA.**
- 110 m²ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldera ematen du eta prest dago sartzeko.

**ZIGAURRE (ZIGA).**
- Jauregi-etxea salgai. 6.000 m²ko lur eremuarekin.

**IRURITA.**
- 140 m²ko etxebizitza salgai, 400 m²ko lur eremuarekin.
- 350 m²ko etxebizitza salgai, 200 m²ko lur eremuarekin.

**ELIZONDO.**
- Pisu haundi bat salgai.
- Bajera batzuk salgai.
- Bajera zoragarri bat errentan emateko prest.

**OITZ.**
- Txaleta salgai: bi solairu, ganbara, garajea eta 2.600 m²ko lur eremua.

**DONEZTEBE.**
- Pisu mobleztatua erentan emateko prest.

**ELGORRIAGA.**
- Pisua salgai.
- Etxe polit bat salgai: 2 solairu, ganbara, sotoa eta bi terraza zabal.
- 3.000 m²ko lur eremua salgai.

**PREMIAZKOAK**
- Baserri edo etxea behar dugu zahar-berritzeko. Tokiak ez du inporta.
- Lur eremu pixka bat behar da. Malerrekan posible bada hobe.
- Malerrekan borda erosiko genuke.
- Baztanen borda erosiko genuke.
- Bortzirietan baserri edo borda erosiko genuke.

**Edozein klasetako kontratuak egiten ditugu. Zerbait nahi izanez gero, deiguzu konpromezurik gabe.**

*Telefonoak: 451841 / 908.778653*
*Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE*

## ANIMALIAK

### 604 KLINIKAK

**ALBAITERITZA KLINIKA**
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
✆ 627660 LESAKA



*Txepetxa*

## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

**Betaurreko batzuk** aurkitu dira Berako Zia auzoan, baserri baten ondoan. ☎ 630116.

**Betaurreko batzuk,** graduatuak, agertu dira Lesakan. ☎ 627514.

**Urrezko eraztuna** aurkitu da Zugarramurdin agorrilaren 31n. ☎ 599009.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Master System 2** bideo jokua salgai, 5 bideo jokurekin. ☎ 510274. Iker.

**Eskopeta** superpuesta salgai, 4 txokerekin, arras modernoa eta egoera onean. ☎ 637879.

**Franchi** eskopeta salgai. Gasezkoa. Arras zorrotza eta egoera onean ☎ 637872.

**Panasonic 61** bideo kamera salgai, osagarriekin. 60.000 Pta. ☎ 627643.

**Donezteben armairu** bat salgai. Bi metro zabal, bi ispilu erdian eta behean kajoiak. ☎ 451782.

**Tornoa** salgai, Innovator T4 markakoa. ☎ 504479 Gaueko 10etatik gora.

**Kalefakzio-galdara**, egurrarekin dabilena, salgai. Ia

berria eta merkea ☎ 631193. Arratsetan deitu.

**Sagardoa egiteko prentsa** (300 litrokoa) salgai, estreinatu gabekoa. ☎ 943. 621156 (gaueko 9etatik 10etara).

**Mega Drive** bideo jokurako 'Fifa Soccer 96' kartutxo jokoa salgai. Erabili gabea. ☎ 637879.

**Vaporetto New** konpletoa salgai. Garraiorako poltsarekin eta nola dabilen erakusten duen bideoa. ☎ 637879.

**Sharp bide kamara** (VLC 650S modeloa) salgai. Garraiorako poltsarekin. ☎ 637879.

## DENETARIK

### 703 BERTZELAKOAK

**Berako neska** batek lagun bat behar du Iruñean pisua osatzeko. ☎ 630694. Beatriz. Eguerditan.

**Neska bat behar da** pisua osatzeko Barañainen. ☎ 637447.

**Barañaingo pisu** batean lagun batentzat lekua daukagu. Interesatzen bazaizu deitu ☎ 610806 edo 510204.

**Iruñean** pisua osatzeko neska bat behar da irailetik aurrera. Gela konpartitua. Langilea bada hobe. ☎ 631442 edo 615054.

**Iruñean** mutil edo neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 631089. Arratsetan edo 615054.

**Bi lagun behar** ditugu Barañainen pisu bat osatzeko (irailetik ekainera). ☎ 610806 Zizi.

**Iruñean pisua** osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 397003.

**Madrilen** (Alcala de Henares) pisu bat osatzeko ikasleak behar dira. ☎ 581068 Idoia.




## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Basaburuako** Nekanerentzat: enteratu naiz maitemindu zarela, bainan nik oraindik itxarongo zaitut.

**ETB1eko Txiskola** saioan ateratzeko nafarrak behar ditugu. ☎ 943.217543 edo 219322 Leire.

**Lesakako** Miren Irigoienentzat, zu zara Bortziriétako neskatxarik politena. Ikusi arte eta lasai egon, ez bait zara idearik egiten nor naizen eta. J.A.G. 484ren partez.

**Berako** Mª Cruz Lanchaseri: ez erre, zure lagunen partez.

**Zorionak** Imanol Retegiri bere urtebetetzean (irailak 10) familia eta arrebaren partez.

**Leitzako** Amaia Olano eta bere lehengusina Urrozko Lorea Babazeri zorionak Leitzako famailiaren partez. Urrozko bestetan ikusiko gara.

## URTEBETETZEAK

**Sail hau dohanekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara:**

**ttipi-ttapa**
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA



**Itsaso Alcalde Etxepare** lesakarrak irailaren 18an beteko ditu 4 urte. Irain eskolan ikasten du.



**Iñaki Goikoetxea Santesteban** aresoarrak irailaren 12an beteko ditu 11 urte.



**Oihana Onsalo Martikorena** aresoarrak irailaren 6an bete ditu 8 urte.



**Txomin Goikoetxea Santesteban** aresoarrak irailaren 13an beteko ditu 7 urte.



**Mikel Olazabal Caballero** aresoarrak irailaren 15ean beteko ditu 10 urte.



**Mikel Begino Irigoien** igantziarrak irailaren 5ean bete zuen urte bat. Aunitz urtez, pottoko!



**Agurtzane Zubieta Almandoz** sunbildarrak irailaren 8an bete ditu 12 urte. DBHko 1. mailan dago



**Ainara Ibarra Almandoz** sunbildarrak irailaren 12an beteko ditu 12 urte. DBHko 1. mailan dago.



**Maite Ibarra Juankorena** sunbildarrak irailaren 18an beteko ditu 9 urte. OHOko 4. maila ikasten du.



**Eneritz Arozena Zugarramurdi** goizuetarrak irailaren 5ean bete ditu 15 urte. Hernaniko Institutuan ari da ikasten.



**Mertxe Berroeta Anglade** etxalartarrak irailaren 11n bete ditu 13 urte. DBHko 1. mailan dago Berako Toki Onan.



**Margari Etxenike** zugarramudiarrak agorrilaren 18an bete zituen 33 urte. Aunitz urtez!!

Ez dira denak baina...

# hauek guziak EUSKALTEGIAn ikasten aritu dira.



**Leitzaldeko Euskaltegia**
610776 Telef.



**Bortzirietako Euskaltegia**
637796 Lesakan
631105 Beran arratsaldez



**Malerrekako Euskaltegia**
451555 Telef.

**Euskara lau haizeetara hedatu!!**
APUNTA ZAITEZ zure herriko Euskaltegian!!
Irailaren 30a arte astia duzu.

# SAME MODELO BERRIAK

**30 eta 160 arteko zaldi-potentzia dutenak**

***SAME 45 ZP enbrage bikoitzarekin 2.375.000 Ptatan. hasita, BEZa barne***

*Leku menditsuan erabiltzeko traktorea erostekotan bazabiltza, begiratu lehenik ba ote duen:*

- Balaztak (frenoak) 4 gurpiletan olio-bainuan
- Esku-balazta independientea olio-bainuan
- Blokeoa 4 gurpiletan
- Martxa ugari, arras abiadura llaburretatik arras luzeetara
- Martxa-alderanzgailu sinkronizatua
- Martxa aldatzeko palanka bolantearen saihetsean
- Bolante erregulagarria
- Bi cardan-giltzadura eta sinkronizazioa trakzio-gurdirako
- Balazta hidraulikoa erremolkearentzat
- Salmenta ondoko zerbitzu profesionala
- Zerbitzu adeitsua eta azkarra ordezko-piezak eskuratzeko
- Erran dizuten potentzia egiaz baduen edo exageraziotan dabiltzan
- Kalidade-prezio arteko harremana egokia den

***20 urteko esperientziak SAME traktoreak saltzen, ematen du gure seriotasunaren berri***
***Aipatutako guzia izanen duzu SAME traktoreetan eta bere kontzesionarioan:***

# AROZ-BERRI, S.A.

121-B errepidea, 54. km.a / 31730 **IRURITA**
Tfnoak: 948-581021 / 580258

**Zerbitzu-tailer berriak Nafarroan eta Gipuzkoan**

**Eskatu informazioa**
**gustora atendituko zaitugu herregatik loturarik sartu gabe**


